

HEZKUNTZA PLASTIKOA/ EDUCACIÓN PLÁSTICA

Irati LERGA SOLA

HAURRAREN KONZEPZIOA
MARISOL ANGUITAREN
PEDAGOGIAN.

TFG/*GBL* 2016



Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Infantil
/ Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana

Trabajo Fin de Grado

**HAURRAREN KONZEPZIOA MARISOL
ANGUITAREN PEDAGOGIAN.**

Irati LERGA SOLA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Irati LERGA SOLA

Izenburua / Título

Haurraren konzepzioa Marisol Anguitaren pedagogian.

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Imanol AGUIRRE ARRIAGA

Saila / Departamento

Hezkuntza Plastikoa / Educación Plástica

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2016/2017

Seihilekoa / Semestre

Udazkena / Otoño

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikokoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak Haur Hezkuntzako haurrak errespetagarriak diren pertsonak bezala ezagutzeko eta ulertzeko bidea eman dit. Maistrek haurren ezaugarri hauek garatzeko hartu behar dugun papera konprenitzen eta ikuspegi kritiko batetik jokatzeko irakatsi dit.

Didaktika eta diziplinako moduluak lan hau burutzeko funtsezkoa zen hausnarketa kritikoa biribiltzen lagundu dit. Marisol Anguita maistraren errelatoek eskaintzen duten gela-esperientziez eta hezkuntza-hausnarketez baliatu naiz, haurren identitatea berreskuratzeko, pertsona bat den heinean.

Halaber, Practicum moduluak hezkuntzaren gaineko hausnarketa kritikoa burutzeko eta maistraren papera kuestionatzeko bidea eman dit; izan ditudan gela-esperientziek helduok haurrak nola tratatzen ditugun pentsatzera eraman nautelako.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko da hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa.

Laburpena

Lan honetan, Marisol Anguitaren pedagogiaren haurren ezaugarrien analisi bat egiten da. Lana zehazteko, maistra honek duen haurren konzeptiotik abiatuz gelako haurren jokaerak aztertzen dira; haurrak errespetagarriak diren pertsonak direla ikusarazteko. Idazki hau irakurtzen duenari argitara eman nahi zaio lan honen mamia haurren konzepzioa aztertzen duen analisi textual batean datzala. Beraz, irakurgai anitz euskarriztat erabiliz lanaren analisisirako tresna prestatu da. Haur burujabeen ezaugarriak kategorietan sailkatu dira, lau eta bost urteko pertsona hauek ikuspegi holistiko batean hartu nahiean. Analisiak jasotzen dituen gelako egoerak eta harreman pedagogikoak aztertu dira, beti ere Marisolek duen haurren konzepzioa kontuan izanik. Ikusi denez, maistra honen haurrak burujabeak dira eta munduan elkarrekin biziak eta konplizitatezko espazioak elkarbanatzeak hezkuntzarako duen garrantzia oroitarazi digute. Bukatzeko, lan honetatik ateratako ikaskuntzak baliagarriak oso izango zaizkit haurren identitateaz eta maistraren paperaz hausnartzen jarraitzeko.

Hitz gakoak: lan proiektuen bitarteko ikaskuntza; haurra; burujabetasuna; harreman pedagogikoak; konplizitatea.

Resumen

En este trabajo se realiza un análisis de las características del niño/a desde la pedagogía de Marisol Anguita. Para concretar el tema, se hace hincapié y se analizan las relaciones pedagógicas a las que dan lugar la concepción de la infancia que tiene Marisol y su posición pedagógica; con la finalidad de hacer ver que los niños y niñas son personas dignas de respeto. Quisiera hacer saber a aquellas personas que lean este escrito, que el corazón de este trabajo es un análisis textual de la concepción del niño/a. Por lo tanto, después de una lectura reflexiva de los contenidos elegidos; se ha preparado la herramienta para llevar a cabo el análisis. Las características de los niños y niñas autónomos se han clasificado en categorías, con la intención de comprender a estas personas de cuatro y cinco años desde una perspectiva holística. Se han analizado las situaciones de aula y las relaciones pedagógicas que recoge el análisis, teniendo en cuenta la concepción del niño/a que tiene Marisol. Como se ha podido comprobar, estos niños y niñas son autónomos y nos han recordado la importancia

que tiene para la educación vivir en compañía y compartir espacios de complicidad. Para finalizar, los aprendizajes obtenidos gracias a este trabajo me serán muy útiles para seguir reflexionando sobre la identidad del niño/a y sobre el papel de la maestra.

Palabras clave: Perspectiva Educativa de los Proyectos de Trabajo; niño/a; autonomía; relaciones pedagógicas; complicidad.

Abstract

In this paper, an analyze of the characteristics of the child through the pedagogy of Marisol Anguita. To focus the work, a special attention is paid to the pedagogical relationships which lead to the concept of infancy of Marisol and her pedagogical position. To those who read this document, inform that the core of this paper is a textual analyze of the conception of the child. Therefore, having carried out a thoughtful reading of the contents; the analytic tool is ready to use. The characteristics of self-sufficient children have been classified, with the purpose of perceiving four and five years-old children from a holistic view. Not only are these children self-sufficient; but also they have recalled us the importance of living in company and sharing complicity. Finally, the learnings obtained writing this paper will be very useful in order to follow thinking about the identity of the child and the role of the teacher.

Keywords: Project-based learning; child; autonomy; pedagogical relationship; complicity.

Aurkibidea

Sarrera	1
1. Marko teorikoa	1
1.1. Haurtzaroaren kontzeptua historian zehar.	2
1.2. Lan proiektuen bitarteko ikaskuntza.	4
1.2.1. Pausoz pauso aurrerantz joan den istorioa.	4
1.2.2. Zertan funtsatzen da lan proiektuen bitarteko ikaskuntza?	5
1.2.3. PEPT-aren xedea ez da soilik metodologia berri bat eratzea.	6
1.2.4. PEPT-aren pedagogiarekin eskola egiten duen maistraren ezaugarriak:	8
1.2.5. Marisol Anguitaren bide profesionala.	9
1.2.6. En femenino.	10
2. Metodologia	11
2.1. Irakurgaien irakurketa eta aztergaia xedatzea.	11
2.2. Kategoriak sortzea.	12
2.3. Kategorien sistema zehaztu.	12
3. Atal praktikoa	15
3.1 Haurra burujabea da: Errespetagarria den pertsona baten balore etikoak.	15
3.1.1. Haurra pertsona bat da.	15
3.1.2. Errespetutsua eta errespetatua.	19
3.1.3. Autonomoa.	23
3.1.4. Esperientzia/ jakinduria duena.	26
3.2 Haurrak iritzia dauka.	28
3.2.1. Interesduna.	29
3.2.2. Gogoetatsua.	31

3.2.3. Arazoak ebazteko gai dena.	33
3.2.4. Ikertzailea.	35
3.2.5. Ideien arteko erlazioak egiten dituen.	37
3.2.6. Interpretatzailea.	39
3.2.7. Ikastuna.	41
3.2.8. Kritikoa.	43
3.3. Haurrak hitza du: Bere errelatoaren autore da.	44
3.3.1. Bidaiaria.	45
3.3.2. Errelatoen autore.	47
3.3.3. Komunikatzailea.	49
3.4. Haurra soziala da: Laguntasuna.	52
3.4.1. Gizartekoia.	52
3.4.2. Konplizea.	53
3.4.3. Taldekidea.	56
3.4.4. Sentibera.	58

Ondorioak

Bibliografia

SARRERA

Istorioek, landareen antzera barreneko sustrai sendoak dituzte. Edozein istorio zerbaitengatik gertatzen da, interes zehatz bat lorea loratzeko arrazoia izaten da. Lan honen sustraiak Marisol Anguitak emandako hitzaldi batean azaltzen hasi ziren. Maistra honek kontatu zituen gela esperientziak eta adierazten zituen hezkuntza-hausnarketak biziki interesatu zitzaizkidan eta bere proiektuari buruz gehiago jakiteko grina piztu zitzaidan, geroago nire proiektua landare baten modura zaintzera eramango ninduen.

Landareak samurtasunez zainduak izan behar dira; lurra irauliz, ureztatuz. Halaber maistrak bere ezagutzak ureztau behar ditu, irakurriz eta sakonduz irakasteko eta transmititzeko; eta komunitatearen interesei buruz hausnartu behar du, lur hezea eskuekin nahasten den moduan. Lan hau hasi nuenetik bere amaiera arte; hazi grinatsu batzuk landatu banitu, egunez egun hazi den landarea ureztatu banu eta bere hazieraren testigu izan banintz bezala izan da. Samurtasun eta esfortzuekin hausnartu eta erredaktatu dudan lan hau, nire lorea da.

1. MARKO TEORIKOA

Zernahi gauzataz hizketan ari garela, testuinguru baten barruan egitea garrantzi handikoa da; denbora eta lekuaren gaineko informazioa mintzagai dugun hori kokatzeko oso adierazleak suerta daitezkelako. Lan honen marko teorikoak idazkiaren atal inportanteenari, atal praktikoari, dagokion zama ematen dio teoria eta praktikaren arteko lotura eginez.

Bi ardatz nagusitan banatzen da lan honen marko teorikoa. Alde batetik, haurraren kontzepzioak historian zehar izan duen bilakaerari heltzen diot; haurraren inguruan egondako ideia nagusien bitartez Marisol en ikuspegiari testuinguru bat jartzeko. Beste aldetik, lan proiektuen bitarteko ikaskuntzari ekiten diot honen jatorria eta ezaugarriak aurkeztuz; Marisol en pedagogia ezin da ulertu ez bada hezkuntzaren perspektiba honi esker.

1.1. Haurtzaroaren kontzeptua historian zehar.

Historian zehar heziketa-praktika oso desberdinak eman dira, eta betidanik bizitzaren bilakaera etapetan, jaiotzatik heriotza arte, banatzeko tendentzia egon da. Etapa hauek banatzeko erak, gizarte bakoitzaren kontzepzio nagusiarekin eta momentu historikoarekin lotura handia daukate.

Grezian da non, heziketa liberalaren eta pertsonaren gorputz eta adimenezko garapen integralaren kontzeptuak sortzen diren. Erdi Aro barrenean heziketa liberalaren ideia guztiz galtzen da eta “librepentsalari”-aren profila alboratuz; hezkuntzaren xedea haurra Jainkoa mirabetzeko prestatzea da, kontuan izanik, eliza Grezia eta Erroman instituzio boteretsuena dela.

Rousseau-k (1712-1778), XVIII. mendeko autore ospetsuenetariko bat, kemenez defendatzen du edozein hezkuntza haurraren mailara egokitu behar dela. Izan ere, haurra ezaugarri propioak dituen izakia denari eusten dio garapen fisiko, adimenezko eta moral bat jarraitzen duelako. Industria iraultzaren garaian lan esku beharra gutxitzen da eta ondorioz, eskolatzearen beharra funtsezko xedean bihurtzen da.

Pedagogo eta filosofoen ideia berritzaileen artean Pestalozzi (1746-1827) edo Froebel-erenak (1782-1852) daude, azkenengo honek “kindergarten” (jardín de infancia) ideia bultzatzen du eta haur-jolasak haurraren garapenean pisuzkoak direla nabarmentzen du.

XX. mendera arte haurtzaroa ez da ezaugarri eta behar zehatz batzuk barne hartzen dituen etapa bezala onartzen, ezta haurra pertsona bezala bere nortasuna izateko eskubidearekin. 1989. urtean Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena sinatzen da zeinean, partaidetza eta iritzi eskubidea ziurtatzea edo diskriminazio oro etetea hitzartzen den. Inor be ezin arraza, genero, hizkuntza edota adimenezko ez-gaitasuna edo fisikoa dela eta kaltetuta izan behar da.

XX. mendean Montessori eta Reggio Emilia ereduak berrikuntza garrantzitsuak ekartzen dituzte, hezkuntzaren arloan. Maria Montessori (1870-1952) bere ereduak garatuz, hezkuntza berritu zuen pedagoga italiarra da. Montessori ereduak giro antolatua izateagatik bereizten da; non elementu bakoitzak besteekin erlazionatzeko uneak sustatzen dituen eta bakarka edo taldeka lan egiteko aukera ematen duten.

Loris Malaguzzi (1920-1994), Bigarren Mundu Gerra garaiko maistrua, bere hiriko hezitzaileak, gurasoak eta haurrak elkartzen ditu, Reggio Emilia eskola kooperatiba eratzeko. Malaguzziren ideiak Vygotsky, Dewey edo Bruner-en antzekoak dira, honek Piaget-en garapenaren teoria ukatzen duen arren. Bere aburuz, haurra izaki soziala da beste hurrez eta helduez ikasten duelarik eta horretarako komunikazioa ezinebestekoa da.

Haurraren garapen kognitiboari buruzko eztabaida garaikidearen autore nagusiak; Jean Piaget (1896-1980) eta Lev Vygotsky (1896-1934) dira. XX. mendeko autore garaikide hauen teoriak eskolatzearen gaineko jarrera ezberdinei bidea eman dizkiete, ikuspegi hauek maistraren egitekoaren eta orokorrean hezkuntza-prozesuaren irudi oso ezberdinak aurkezten dituzten arren.

Vygotsky-ren aburuz, adimenezko zein hizkuntza tresnak ulertzeko eta erabiltzeko gaitasunean datza adimena. Garapen Hurbileko Eremua (GHE) haurraren gaitasun bereizlea da; haurrak besteen seinale eta jarraibideak igartzen eta erabiltzen dituenean. Bakoitza bere adimen-prozesuaren jakinaren gainean dagoenean, hausnarketa ariketa egiteko gai da. Behin haurrak eginbidea menperatzen duela, bere bere meta-ezagutza propioa garatzen du.

Autore garaikide honek teoria sortzaile bat azaltzen du, non gizakiak guztiz garatzeko gizartearen laguntza daukan. Horretarako; lengoia, komunikatzeko eta besteekin erlazionatzeko tresna dena, funtsezkoa da. Vygotsky-ren garapen eredua soziala da, haurra besteekin elkarlanean jarduten duen pertsona bezala entenditzen duelako. Piaget-ek, ordea, haurraren garapen prozesua indibidualtzat jotzen du. Izan be, bere garapenaren teorian gizarte maila eta testuinguru kulturala ez ditu aintzakotzat hartzen.

Vygotsky-k hezkuntzaren arazoa bere kondizio bideragarrietan etenditzen du eta hezkuntza elkarriketaren jarraipen bat da, gizartea eraikitzen denarekin. Maistraren adimena eta honen gaitasuna adimen hori beste batzuen eskura egoteko, bere teoriaren garrantzizko puntua da. Hortaz, bere ikuspegian maistrarik gabeko hezkuntza ezinekkoa da.

1.2. Lan proiektuen bitarteko ikaskuntza.

1.2.1. Pausoz pauso aurrerantz joan den istorioa.

“Perspectiva Educativa por Proyectos de Trabajo” (PEPT) 90eko hamarkadan, Pompeu Fabra eskolan (1983, Bartzelona) sorburua duen hezkuntza ikuspegi psikopedagogikoa da; gure burua eta ingurukoena konprenitzea premia nagusizat hartzen du, guztiok ikasteko espazio bat aurki dezagun. Irakastunek eta ikastunek solasean sortzen dituzten konexioetatik, elkarrizketa kultural endredatu bat argitzen dituen kontaktak azaltzen dira.

Irakastun inkonformista batzuen ideia iraultzaile eta eskola-praktika ikertzaileak istorio honen motorra izan ziren. Hezkuntza sisteman sinesteari utzi zioten, akatsak ikusten zizkieten eta. Bere lanbidearengatik ilusioa galtzea kezkatzen zien eta eskola egiteko modua transformatu nahi zuten. Taldea elkarrizketa ireki batean elkarrekin berriz pentsatzen hasi zen, esperientzia pedagogikoak konpartituz. Hezkuntza sistemari kritika egin zioten, beste eskola bat posible zela eta aurrez aurre zegoen hezkuntza erronkan lan egin behar zela uste zutelako. Fernando Hernández-en hitzetan islatzen da:

“..una escuela que les ayude en su necesidad de dar sentido a sus preocupaciones y ampliar referentes” (Hernández, 2000).

Hernández-ek eta Montserrat Ventura-k “La organización del currículum por proyectos de trabajo” (1992, Hernández y Ventura) liburua idatzi zuten, Pompeu Fabra eskolako irakastunen partaidetzarekin. Liburuak pedagogia konstruktibistaren begiradatik kontatutako hezkuntza-esperientzia bat jasotzen du, curriculum-a lan proiektuen bitarteko ikaskuntza bidez antolatzeko proposamen bat aurkeztuz.

Urteak pasa diren ahala; maistra eta pedagogo hauek ikasgela-esperientzia berriak bizi dituzte, bidaia-lagun berriekin topatu dira eta birpentsatzeko espazio berrietan aurkitu dira. Hortaz, garai batean idatzi zuten liburua moldatzea erabaki dute. Gaur egun; Marisol Anguita *“Perspectiva Educativa de los Proyectos de Trabajo”* (UB) ikerketa taldearen kide aktiboa da, Hernández eta beste maistra batzuekin batera.

1.2.2. Zertan oinarritzen da lan proiektuen bitarteko ikaskuntza?

Lehenenik eta behin, Hernández-ek eta bere kideek aldarrikatzen duten etengabeko elkarrizketa parajetan berriz pentsatu beharreko hezkuntzaren zentzua konprenitu behar da. Gakoa ez dago lan proiektuen bitarteko ikaskuntza ikuspegiaren sekretuak biluztean edo errezeta magiko batean sinestean. Alde batetik, ez dagoelako inolako sekreturik lan modu honen bidez arrakasta izateko eta bestetik, besteek egindakoaren berdina errepikatuz lan modu honek ez duelako funtzionatuko.

PEPT-a bakoitzaren barrenetik, bakoitzaren izatetik konprenitu behar da. Beste hitz batzuekin esanda, bete-betean endredatu behar zaren bidaian datza non ezagutzeko desirak bizirik izan behar dituzun. Hernández-ek eskola egiteko proposamen honen funtzioa azaltzen du:

“La función de los proyectos de trabajo es crear estrategias de organización de los conocimientos en base al tratamiento de la información y al establecimiento de las relaciones entre hechos, conceptos y procedimientos, que facilitan la adquisición de conocimientos”. (Hernández, 1988).

Lan proiektuen bitarteko ikaskuntzaren funtzioa ezagutzak antolatzeko estrategiak sortzea da; informazioaren trataeran eta ezaguera eskuratzea errazten duten ekintzen, kontzeptuen eta prozeduren arteko erlazioetan oinarrituta dago. Izan ere, informazioa gure izatetik bereganatzea hau buruz ikastea baino askoz praktikoagoa da. Hori dela eta, ditugun aurrezagutzetatik hasita metatzez jokatu ordez, erlazioez egingo dugu. (Hernández, 1988).

Gelan jazotzen diren bidaiek eta pasadizoek egoera aberats baten sustapen grinatsuan dute sorburua; hurrei nor diren ezagutzeko laguntzen die eta aldi berean, besteengandik ezagutuak izateko. Eskolako bizitza denboran zehaztutako jarduerak baino haratago doa, taldeko esperientziak eta sentipenak beraientzat zer esanahi daukaten hausnartzeaz doa eta mota honetako galderak egiten dizkiete bere buruei: Zer zerikusi dauka nirekin egoera, informazio edo obra artistiko ... honek? Zer dio nitaz?

Bai Marisolek bai Fernandok, eskola-praktika pentsatzaile hau haurra beraientzat nor den kolektiboaren barnean hausnartuz konprenitu dute. Ikerketa talde bereko kideak

diren bi hauek, ni-aren posiziotik gurea den posiziorantz kulunka aberasgarri batean bidaiatzen dutela diote:

“... viajando del yo al nosotros en un vaivén que enriquece, vincula, involucra ...”

(Anguita y Hernández, 2010).

1.2.3. PEPT-aren xedea ez da soilik metodologia berri bat eratzea.

Lan proiektuen bitartez lan egiten saiatu diren batzuk PEPT-aren zentzia ez dute bere sakontasun osoan ulertu; noraezean ibili dira eskola egitea den kontzeptu berritzaile honek dakarren benetako hezkuntzaren ideiarekin aldaketa ulertu gabe. PEPT-a ez da heziketa metodo teoriko bat soilik, pedagogia hau praktika hezitzailetik sortu zen eta. Egungo irakastun askok gelan proiektuen bidez irakatsi eta ikasi orde, proiektuak egiten dituzte. Horrela, pedagogia honek barne hartzen duen eskola egitearen zentzia nahasten dute eta Proyectos de trabajo izena era desegokian erabiltzen dute.

Erratuta dauden ikuspegi hauek, PEPT-aren atzean dagoen hezkuntzaren aldaketa hau dela eta, benetan zer den birplanteatu beharko lukete. Egunero eskolara joatean, izateko (gu), kontatzeko (gu) eta elkarrekin bihotzean ukitzeko gogoak izatea oso garrantzitsua da. Azken batean, bizitza gure begien aurrean daukagu eta sakonki pentsatzea (gu) eskatzen digu.

Hernández eta bere taldeak, beraien proposamen eduki duen ibilbideaz koiziente izan dira eta hori dela eta gutxienez hiru testuetan saiatzen dira beraien ikuspegia zehazten eta markatzen. Lehenengo testuan, Laura Morejón-ek Fernando eta bere kideek “Educación y Cultura Visual” liburuan lan proiektuen bitarteko ikaskuntza zer den eta zer ez den argitzen duteneko azalpenak jasotzen ditu:

“No es un proyecto todo lo que se le parece:

- Una presentación de lo que sabe el profesor, que es el protagonista de las decisiones sobre la información y que es el único que encarna la verdad del saber.

- Un recorrido expositivo sin problemas y sin un hilo conductor.

- Una presentación lineal de un tema, basada en una secuencia estable y única de pasos y vinculada a una tipología de información (la que se encuentra en los libros de texto).

Aquello que podría considerarse como un proyecto:

- Un recorrido por un tema-problema que favorece el análisis, la interpretación y la crítica (como contrastes de puntos de vista).

- Donde predomina la actitud de cooperación y el profesor es un aprendiz y no un experto (pues ayuda aprender sobre temas que ha de estudiar con los alumnos).

- Un recorrido que busca establecer conexiones y que cuestiona la idea de una versión única de la realidad.

- El docente enseña a escuchar: de lo que otros dicen también podemos aprender.” (Hernández, 2000).

Bigarren testuan Fernando-k Marisolek eta Montse Ventura-k indarra harreman pedagogikoetan jartzen dute. Artikuluaren esaldi deigarri batzuk zititzen ditut, non gertatzen den, ikertzen duten eta bizitzen duten arteko erlazioek ikaskuntza pedagogiko hau posible egiten duten:

“Actualmente no hay un proyecto, hay diversos proyectos que se relacionan entre sí dentro de un proyecto de vida de aula, donde se establecen relaciones con todo lo que sucede, no solamente en el aula, sino también en la escuela y fuera de ella.

Emerge un tejido de deseos e interrogantes que potencia las relaciones con los saberes, conocimientos y sujetos.” (Anguita, Hernández, Ventura, 2010).

Eta hirugarren testuan Fernando-k, berriz ere, eskolan proiektuen bidez lan egitea ikerkuntza-formatu ireki bat dela dio:

“Un proyecto de trabajo supone una concepción del aprender que tiene en cuenta voces distintas.

Un proyecto de trabajo podría ser considerado como un formato abierto para la indagación.” (Hernández, 2002).

Nik neronek ere, Hernández eta kideek kezkatzen dituzten praktika eta ikuspegiak zuzenean ezagutzeko aukera izan dut. Eskolan egoteko eta gela barnean ematen diren egoerei buruz hausnartzeko okasioa izan dudanean, arterago deskribatu ditudana

estiloko maistrak ezagutu ditut. Adibidez, maistra batek bere lau urteko gelan “Baserriko animaliak” gaia lantzea erabaki du eta hurrek gaiarekiko interesa izatera bultzatzeko, taldeko elkarrizketan gaia aurkeztu du.

Maistrak unitate didaktiko bat prestatu du, non aste batzuen zehar egingo dituzten ariketa guztiak erredaktatu dituen. Txosten honek “proiektu”-arekin eskuratu nahi diren helburu orokorrak, lantzen diren edukiak, ariketen azalpenak eta beharrezko materiala biltzen ditu. Hurrek baserriko animaliei buruz ikasten dute; esaterako, animalien izenak, hauek egiten dituzten soinuak ... Gelan zentzugabeak diren jarduerak egiten dituzte; ipuin bat irakurri, kanta bat abestu, antzerki bat antzeztu edo baserri batera ateraldi bat egitea bezalakoak. Hauek jomuga esanahidun gabeko jarduerak dira.

Taldeko hurren nahia izan bazen animaliei buruz gehiago jakitea, istorio guzti honek zentzutasun minimo bat izan zezakeen. Baina maistra haur taldearen ibilbidea zehaztu du jadanik, eta egoeraren agintea hartu du, alegia. Ondorioz, maistrak gelako presidentea dela eta boterea duela komunikatzen die; hurrek nahi beste mugitu ditzakeen txotxongiloetan bihurtzen dituelarik.

1.2.4. PEPT-aren pedagogiarekin eskola egiten duen maistraren ezaugarriak:

PEPT-aren ikuspegiak maistra mota berezi bat eskatzen du; hurrengo lerroetan azaltzen dut zein izango liratekeen ezaugarri hauek:

Sustatzailea.

Maistrak hurren interesari bultzada ematen die, haiek egindako galderak ahaztu egin ez daitezkeen eta haur bakoitzak nahi duen bidea aukeratu dezan. Berak hurren hitzei arreta jartzen die, elkarrizketa aberasteko eta galdera berriak sustatzeko. Batzuetan, gelako elkarrizketan, oharrak hartzen ditu hurren iruzkin edo galdera interesgarriak erregistratzeko.

Taldeko bidaia-laguna, konplizea.

Maistra hurren alboan berdina bat bezala kokatzen da, ez ordea, neskato eta mutilen gainetikoko posizio batean. Hortaz, maistra taldeko beste bidaia-laguna bat da. Bera ez da gelako presidente bakarra, izan ere, gainontzeko haur guztiak presidentek dira ere. Gainera, hezkuntzako profesional izan aurretik pertsona sentikorra da; emozioak ditu

eta hurrek bezala, jakin-mina pizten dizkioten galderak dauzka. Batzuetan hauren laguntzailea da, galderak dituztenean pistak ematen dizkielako.

Irakurlea.

Maistra ez doa gelara ea zer gertatzen den ikustera eta hauren irudimenek bera txundituta uztera, aldiz, gelan bizi-bizian dagoen bide-gaiaren bildutako informazioarekin doa. Hots, maistrak gaiari buruzko testuak irakurri ditu eta autore ezberdinen ikuspegiak ezagutu ditu. Ondoren, gaiaren gaineko bere iritzi propioa izateko. Berarentzat gaia ezezaguna bazen, informazio berria xurgatu du. Berak egiten duen irakurketa lana, hauren galderak argitzeko baliagarria suertatzen da eta testu hauek bide-gaiaren bibliografia esanguratsuan bihurtzen dira.

Hausnartzailea.

Maistrak eskolako beste maistrekin bere emozioak, zalantzak eta gelako bizitzakorapiloa konpartitzen ditu. Maistrak beste hezitzaileen konpainian eskola egiteko moduan birpentsatzen du eta guztiek taldean eztabaidatzen dute, interes komun bat konpartitzen dutelako: beste eskola bat posible dela uste dute; eskola bat non bizitzako kontakizunak konpartitzen diren.

1.2.5. Marisol Anguitaren bide profesionala.

Marisolen bitzita profesionalari buruzko zertzelada batzuk ematea oso beharrezkoa ikusten dut testuinguruan kokatzeko. Marisol Anguita, eskola publikoan, Haur Hezkuntzako maistra da eta "Hezkuntza eta kultura bisuala ikuspegi konstruktibista"-ren masterra (Bartzelonako unibertsitatea) dauka. 1992tik aurrera Haur Hezkuntzako maistra bezala, lan proiektuen bitarteko ikaskuntza eta curriculum integratuarekin erlasionaturiko berrikuntzak gauzatzeko intentzioekin hausnarketaren praktikatik lan egiten hasi zen.

1994tik hona UAB eta UB-an bildutako talde ezberdinetan parte hartu zuen, eskolako berrikuntza eta aldaketari lotutako jardunaldi eta kongresuetan ere bai. Bartzelonako unibertsitateko "Perspectiva Educativa de los Proyectos de Trabajo" taldea, ikaskuntza pertsonala eta profesionala garatu dituen espazioetako bat da. Bere desira berritzailean eta bere etengabeko bilaketaren bultzadan sakonki eragin dion esperientzia izan da. Taldea Fernando Hernández-ek koordinatzen du, zeinarekin urte askotatik eskola birsortzearen desiratik elkarlana egin duen.

1.2.6. En femenino.

Marisolen pedagogian maistraren paperak garrantzi handia dauka eta maistrei buruz mintzatzen denean genero femeninoan egiten du, “maestras” forma linguistikoa erabiliz. Era berean; kolektiboaz, partaide guztiak barneratuz, mintzatzen denean “nosotras”-en egiten du eta jokaera honek argudio sendo bat darama alboan. Izan ere, femeninoan mintzatzeak berak hartu duen jokaera politiko eta sozial bat da bere ustez hizkuntzaren erabilera maskulinoan oso harrapatuta gaudelako.

Laburrean, Marisolek bizitzan eta hezkuntzaren munduaren barruan; hiritar, emakume eta maistra bezala emakumetasuna pentsatzeko eta izateko beste modu bat bezala aldarrikatzen du.

2. METODOLOGIA

Edukien analisia zentzu zabalean testu idatziak, grabatuak, margotuak, filmatuak ... interpretzeko teknika da. Material hauen izendatzaile komuna, irakurrita eta interpretatuta bizitza sozialaren zenbait aspektu eta fenomenoek ezaguerako ateak irekitzen dituen eduki bat barnean izateko gaitasuna da.

Analisi mota honetan, informazio biltzeko tresna nagusia irakurketa da. Alabaina, edukien analisiaren bereizgarria eta beste ikerketa teknikez desberdintzen duena, datuen azterketa eta hauen interpretazioaren uztartartzea da. Lan honetan jarraitu dudana metodologia testu idatzien analisisan eta hauekiko edukien interpretazioan funtsatzen da. Edukien analisi kualitatiboa burutu dudana heinean, ikerketa planean zenbait urratsei eutsi naiz. Ondoren, Jaime Andréu-ren, soziologiako irakasle eta ikertzailea, edukien analisiaren tekniken azalpenak (Andréu, 2002) euskarritzat hartzen ditut nire lanaren prozesua aurkezteko:

2.1. Irakurgaien irakurketa eta aztergaia xedatzea.

Marisol Anguitak "Relatos del tránsito por la educación. Creadores de circunstancias para aprender juntos" (2016) eman zuen hitzaldiaren bitartez, eskolan lan egiteko duen modua sakonago ezagutzeko interesatu ninduen. Maistra honek eskola egiteko moduari buruz ikertu nahi izan nuen, gaiaren gaineko aurre-ezagutzak ez nituen arren. Marisolaren pedagogian zein den haurren kontzeptzioa nuen interesgune, hau da, zer pertsona mota den haurra berarentzat eta zer izatera heldu daitekeen hezkuntzaren bitartez.

Edukien analisi honen tresna nagusia irakurgaiak izan dira; batik bat Marisolek *Cuadernos de pedagogía* hezkuntza aldizkarian argitaratu dituen gela-esperientzien errelatoak. Baina baita ere, maistra honen pare bat blog idatzizko irakurketa material gisa erabili ditut, hauekiko gelako haurren eguneroko bat errelatatzen duelako. Ratolins i ratolines de la pau (2010-2011) gehien aztertu dudana blog-a izan bada ere, Els pescadors i les pescadores d'estrelles (2012-2013) izeneko blog-etik datuak ere bildu ditut.

Analisiaren gaia xedatu nuen, hurrengo galderak eginez: Zer ikertu nahi dut?, Aurre-ezagutzak eta bibliografia daukat?, Zer marko teorikoan taxutzen da?, Zer testu

erabiliko ditut? Lana egin dudana ahala, galdera hauei erantzuna aurkitu dizkiete, analisiaren ardatza zehaztea lortu dudana arte.

2.2. Kategoriak sortzea.

Ondoren, nire lan tresna eratu dut. Hots, haurra definitzen duten kategoria edo erakusleak sortu ditut eta horretarako hainbat urrats eman ditut, prozesua ez da erraza izan eta.

Lehendabizi, irakurketatik sortutako ideia zaparrada antolatu dut. Amankomunezko ezaugarriak dituzten ideiak multzoetan elkartu ditut eta multzo horiek definitzen dituzten kategoriak sortu ditut. Zehatz mehatz esanda, irakurgaiak berrirakurri ditut eta horietan ageri diren ideia adierazgarriak azpimarratu ditut.

Bigarrenik, buruan eratu dudana kategorien anabasa taxutzeko sailkapen zehatzago bat egin dut. Hau da, kategoria hauek, berriz ere, amankomunean dituzten ezaugarrien inguruan antolatu eta ardatz nagusi batzuk definitu ditut. Lau dira atal praktikoa biltzen duten ardatzak: “Haurra burujabea da: Errespetagarria den pertsona baten balore etikoak.”, “Haurrak iritzia dauka.”, “Haurrak hitza du: Bere errelatoaren autore da.” eta “Haurra soziala da: Laguntasuna.”

Behin kategorien zerrenda antolatua eduki ondoren, analisarako tresna egokia den ala ez frogatu dut Marisolen testuetan argigarriak diren pasadizoak bilatuz. Urrats hau denbora nahikotxo eramanez, nahiz eta, zailtasun maila handia ez duen pasadizo bilaketak dedikazioa eskatzen duelako. Marisolen artikuluetatik eta Ratolins i ratolines de la pau (2010-2011) blog-etik pasadizo gehienak hartu ditut.

Beraz, ardatz nagusietan ageri diren pasadizoak elkarren arteko lotura dute bai haur berdinak pasadizo askotan azaltzen direlako bai esperientzia batzuk berdinak direlako. Halere, pasadizo guzti hauek lana bereizgarri bihurtzen dute, istorio eta esperientzien aniztasunak originaltasuna ematen diolako.

Amaitzeko, pasadizoak irakurtzearekin kategorien antolaketa berrikusi eta optimizatu dut behin betiko zehaztapenak finkatuz. Kategoriak, lan honetan, agertzen diren bezala analisirako tresna eraginkorra bilakatu dira.

2.3. Kategorien sistema zehaztu.

Hori dela eta, behin kategoriak sortu ditudala, analisirako kategoria bakoitzari Marisolen gelako adibide edo pasadizoren bat bilatu diot, hauek taula batean modu

eskematiko batez idatzi ditut eta ondoren erredaktatu ditut. Izan ere, taula kategoriak antolatzeke eta ilustratzeko erabili dudana euskarria izan da. Modu honetan, Marisolek bere hurrekin izandako egoerak eta egindako ikerketak aztertzea eta interpretatzea errazago izan da. Pasadizoak kategoriatan edota ezaugarri zehatz batzuetan egindako azterketa bait dira.

Nahiz eta azterketarako kategorien sistema jarraitu dudana; ba dakit ezaugarri edo kategoriatan batzuk besteekin erlazionatuta daudela. Ba dakit, berez, modu orokor batean ukertu beharko litzatekela bere lan egiteko era. Baina, giza zientzietan sarritan gertatzen den bezala, ezinbestekoa da analisia egiteko errealitate artifizialki ulergarriagoak diren kategorietan zatitzea. Hortaz, esan beharra daukat, Marisolen pedagogiatan haurren kontzeptua ulertzeko xedearekin soilik, sailkapenaren sistema hau erabili dudala. Zehaztu ditudan kategoriak elkarren artean erlazio handia daukatela jakinez, bere gelako haurrak pertsonetan nola bilakatzen diren azaltzen dutelako. Nolabait ere atal ezberdinen arteko loturak egiteak, noizean behin besterik ez bada maistra honen pedagogia gauza orokor, holistikoa edo borobila dela gogorarazten du, ez atalez egindako zerbait.

Taula 1. Ardatzak eta kategoriak.

ARDATZAK.	KATEGORIAK.
1. HAURRA BURUJABEA DA: BALORE ETIKOAK.	Haurra pertsona bat da.
	Errespetutsua eta errespetatua.
	Autonomia.
	Esperientzia/ jakinduria duena.
2. HAURRAK IRITZIA DAUKA.	Interesduna.
	Gogoetatsua.
	Arazoak ebazteko gai dena.
	Ikertzailea.
	Ideien arteko erlazioak egiten dituen.
	Interpretatzailea.
	Ikastuna. Kritikoa.
3. HAURRAK HITZA DU: BERE ERRELATOAREN AUTORE DA.	Bidaiaria.
	Errelatoen autore.
	Komunikatzailea.
4. HAURRA SOZIALA DA: LAGUNTASUNA.	Gizartekoia.
	Konplizea.
	Taldekidea.
	Sentibera.

3. ATAL PRAKTIKOA

Marisolen pedagogiari buruz idatzi dut, haurra ardatz nagusitzat hartuz. Berea den eskola egiteko moduan pentsatu dut, deskubritzeko ea zer esan nahi duen niretzat eta nire hitzekin adierazteko. Are gehiago, Marisolek duen irakasteko estiloaren ondorioz niri gustatuko litzaidakeen irakasteko estiloan hausnartzeko eta nire eskola egiteko modua aurkitzeko.

Maistra honek eskolan egiten duen lanean fokua jartzen dut, bere haurren alboan eraikitzen duen erlazio soziala eta pedagogikoa konprenitzeko batik bat. Azterketa-lan hau ez da haurrak nolakoa diren definitzen duten ezaugarrien zerrenda bat, ordea, bere lan pedagogikotik haurrak nola ikusten diren zehazten duen azterketa-lana da.

Marisolek zer motatako haurrak hezten dituen konprenitzeko, bere gelan gertatu diren pasadizo anitzak adibidetzat hartu ditut. Pasadizo hauek, kategoria zehatz batzuetan egin dudana azterketa ilustratzen dute. Lan guzti honen fundamentua gutxika hornitu dudana azterketa da, Marisolen marko pedagogikotik agerira atera ditudana ezaugarri zehatz batzuek osaturik.

Azterketa-lanari hasiera eman aurretik, Marisolen pedagogiaren oinarria haurraren burujabetza bilatzea dela, ez ordea, eskolako ohiko irakasgaien transmisio hutsa ematea argi eta garbi uztea da nire asmoa. Besteak beste, maistra hau bere bizitza balore etikoen bitartez kudeatuko duen pertsona baten eraikuntza bideragarria izateaz arduratzen delako.

3.1. Haurra burujabea da: Errespetagarria den pertsona baten balore etikoak.

3.1.1. Haurra pertsona bat da.

Beste edozer baino lehen, Marisolek bere gelako haurrak pertsonak bezala hartzen ditu. Hots, bere laguntzaren bitartez bere izaera garatu dezaketen pertsonak bezala. Eguneroko hizkuntzan *pertsona* hitza erabiltzen den moduan; bereganako adimena eta arrazoitzeko gaitasuna eta berezko identitatea duen izaki bezala hartzen ditu. Marisolekin dauden haurrak hiru eta sei urte bitarte dituzte eta bere bizitzako garai garrantzitsuenetako batean aurkitzen dira, haurtzaroan, alegia. Haur hauek gizartean

bizitzeko erremintak gutxika eskuratzen dituzte; besteekiko sentiberatasuna daukate, adimena eta borondatea edukiz gain.

Maistra honen gelan, haurrak diren bezala jokatzeko eta pentsatzen dutena adierazteko eskubidea dute; bere betekizunak bere gain hartzeko prest baldin badaude. Maistrak bere ekintzen jabe izan behar direla ikusarazten die. Ildo horretatik jarraituz, Marisolen pedagogian haurrak pertsona askeak dira eta pareko bat bezala tratatzen die.

Haurren identitateak bere pedagogiaren elementu funtsezkoenetako bat dira. Marisolek norberak bere identitatea deskubritu eta definitu behar duela aldarrikatzen du eta hurrei identitate propioaren aurkikuntza bizitzeko espazioak irekitzen dizkie, norberak bere pertsona eta besteena ezagutu ditzan.

Marisolek, bere gelan hurrek bere identitatea ezagutu dezaten, bitartekari bat sartzen du haur batzuen istorioen eta beste batzuen sentipenen arteko zubiz egiten duena. *Cajas de vida* bezala izendatzen du, bere pertsona aurkezteko eta hurrek besteen aurrean berea aurkezteko bitartekari bezala erabiltzen du Marisolek. Aurkezpen pertsonal bat baino ariketa sakonago batean datza, haurrak bere bizitza-kutxa bere identitatea eta besteena deskubritzeko eraikitzen du.

Kurtsoan zehar haur bakoitzak bere bizitza-kutxa eraikitzen doa; kutxa horretan bere istorioak, besteekin izandako esperientziak eta hauek sorrarazi dizkioten emozioak gordetzen ditu. Egia esan, hain bereak diren bizipen horiek gorde beharrean bere sakonetik mundura atera eta besteekin elkarbanatzen ditu. Kasu honetan, “gorde” aditza erabili ordez “elkarbanatu” aditza erabiltzea askoz zuzenago da.

Marisolek bere gelan proposatzen dituen kutxa hauek, norberaren bizitzaren kapsula bat bezala ulertzen ditut; kutxa bere edukiak gorde ditzakeen objektu fisikoa delako edo zehatzago esanda, bere emozioekin lan egiteko, istorioak ezagutzeko eta gai desberdinei buruz deskubritzeko bitartea. Aldi berean, berak hurrei objektu moldakor bat bezala aurkezten die kutxa; hau irekiz gero nahi adina gauza sartu edo atera ahal dituztelako honen buru-egoera eta fisikoa moldatuz. Batzuetan kutxak gainezka daude,

bere jabeek abentura asko izan dituztenean edo emozionalki askatzeko beharra dutenean.

Haur hauek bere bizipenak kutxetan sartzen dituztenean, modu askotan egiten dute. Esaterako; batzuk txikitako argazkiak sartzen dituzte, beste batzuk pertsona berezi batek idatzitako eskutitza, bere jostailu gustukoena edo hondartzan hartutako oskol bat istorio hunkigarriren bat ezkutatzen duena ... Gehienetan gauza materialak dira, baina pertsonaren izateaz eta bere istorioez asko esaten duten objektuak. Hauei atxikita dauden emozioak eta esperientziak dira kutxen jabeek kontatuko dituztenak eta diren pertsona definitzera lagunduko dizkietenak.

Hona hemen esandakoa erakusten duten adibidetzat har daitezken pasadizoak: Alde batetik, Maria deituriko neska baten bizitza-kutxa aurkezten duen pasadizoak bere pertsonaren eraikuntza jasotzen du. Beste aldetik, Biel deituriko mutiko baten bizitza-kutxa irekitzen duen pasadizoak bere identitatearen aurkikuntzaz jarduten du.

Pasadizo 1: Maria deituriko neska baten bizitza-kutxa.

Maria deituriko neska batek bere kutxan gorde dituen sekretuak atera ditu, beste hurrekin elkarbanatzearen helburuarekin. Neskatoak bere desirak zeintzuk diren kontatu dizkie; nini txikia izatea gustatuko litzaioke bere ahizpa Juliarekin jolasteko, alegia. Gainontzeko hurrei bere kidearen nahia harritzen die, izan ere, beraiek handiak izateko irrikan daudela aitortzen dute.

Ostean, harriduraz, galdetu diote ea zergatik izan nahi den nini txikia eta Maria jeloskor azaldu da, bere amak ahizpari ematen dion atentzioarengatik inbidia duelako. Kontakizun honen bidez, ahizparen jaiotzak sentiarazi dizkion kezkek eta jelosiak onartzeko eta bideratzeko bidea aurkitu du. Horrela azaltzen du Marisolek:

“Leo uno de los secretos que Maria saca su de caja. Dice que querría ser un bebé para jugar con Júlia, su hermana que acaba de nacer, para hacer cosas con ella. Algunos niños, sorprendidos, le preguntan por qué quiere ser un bebé, ellos prefieren ser mayores. Ella nos cuenta que le gustaría que su madre la tratase como a un bebé, igual que a Júlia ...” (Anguita, 2012, p. 36).

Neskatoak bere hitza emateko eroso sentitu den espazioa aurkitu du; bidenabar gordeta zituen sentipenetan eta egonezina sortzen zioten horietan pentsatu da. Bere bizitzaren pasadizo esanguratsu hau beste hurrekin elkarbanatzeak, bere etxean

dagoen egoera berria onartzera eta bere ahizparen etorrerarekin ongi egotera lagundu dio. Mariak bere bizipena besteekin partekatzerakoan pertsona bezala hazi da, aldez aurretik bere buru propioari buruz zeuzkan ikuspegia eta inpresioa aldatu direlako.

Pasadizo 2: Biel deituriko mutiko baten bizitza-kutxa.

Arratsalde batean Biel deituriko mutiko batek, bere ama Montseren laguntzaz bere bizitza-kutxa irekitzen du. Bielek bere bizitzako pasadizo oso adierazgarri bat gainontzeko hurrekin elkarbanatzen du, bera eta Arnau bere amaren sabelean zeudeneko pasadizoa, alegia. Biel eta Arnau bizkiek, amaren haurdunaldiko ekografiak etxean gordetzen dituzte. Mutikoak bere argazkiak, ekografiak eta haurdunaldiaz jarduten duten liburuak biltzera lagundu dio amari eta ondoren gelara eraman dituzte: *“Amb el Biel vam preparar fotos, ecografies, llibres i vaig anar a la classe per compartir una tarda amb tots ells.”* (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 1).

Mutikoak bere amaren laguntzaz bere bizitza-kutxa ireki du, eta bidenabar bere bizitzaren jatorria besteekin elkarbanatu du. Gelako kideek Biel eta bere anaia sabelean nola kokatuak zeuden, zergatik jarri zioten *Biel* izena, zergatik ziren hain txikiak jakin nahi izan dute. Beraientzat, ezagutzeko eta ikasteko gogoak ez dauzkate mugarik.

Orduan, pasadizo honen protagonistak berak eta Arnauk bere amaren sabelean zeukaten posizioa irudikatzea erabaki du eta Marc lagunari laguntza eskatu dio. Bere lagunkidearen parte-hartzearekin berarentzat hainbeste emozio biltzen dituen momentua irudikatzen du. Biek intimitatezko espazioaz disfrutatzen dute, argiki, eta elkarrekin hunkitzen dira:

“Es posen en la mateixa posició que estaven a la panxa l'Arnau i el Biel. El Marc i el Biel s'emocionen una mica.” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 2).

Mutikoari bere amaren sabelean zeuden hilabeteetako ekografiak besteei erakustea eta bien fetu-jarrera azaltzea bere emozio sakonak ateratzeko balio izan zaio. Momentu horretako protagonista sentitu da, besteek bere pasadizoan interesatuak egon direla antzeman duelako eta horrek istorioaren sakonera joateko inizatiba piztu dio. Biel nondik datorren kontziente da, eta gelan besteekin elkarbanatu duen kontakizunak bere jatorria zein den gogorarazi dio. Pasadizo honetan, Marisol

haurrak bere bizitza-kutxa berarentzat eta besteentzat ireki du eta bere identitatea deskubritzeko bidean sartu da.

3.1.2. Errespetutsua eta errespetatua.

Marisolen eskola egiteko moduan, besteekiko errespetua izatea oso garrantzitsua da. Beraz, hurrei norberarenganako nola besteenganako errespetua eduki behar dutela irakasten die. Maistra honen pedagogian pentsatzen hasi naizenean, norberak bere ideietan sinestea eta ziurtasuna izatea errespetuaren lehendabiziko urratsa dela ulertu dut, nork bere ideietan sinesten ez duen bitartean nekez jasoko duelako besteen errespetua.

Marisolek egiten duen eskola praktikan; hurrek besteen ideiak entzuteko gai direnean, hitza emanez eta beraren aurkako iritziak errespetatuz, besteek berak dauzkan ideiak errespetatzen dituzte. Entzuten jakitea eskuratzen den trebetasuna da, besteen pentsamenduak eta iritziak errespetutik ezagutu nahi direnean. Goethek errespetuzko ideia hau ezin hobeto definitzen du; hitz egitea behar bat dela dio, entzutea, ordea, arte bat:

“Hablar es una necesidad, escuchar es un arte.” (Goethe, 1749).

Maistra honen gelako hurrek norberarenganako eta besteenganako errespetuzko eremuetan mugitzen direnean, besteen kontakizunetan pentsatzen dira eta elkarrekin esperientziak izaten dituzte. Elkarren arteko errespetu hau ematen denean, haurra iritzi guztiak posibleak direla ulertzera iristen da. Errespetua bi norabideko kalea da; besteengandik errespetua jaso nahi baduzu, haiei eman behar diezu ere.

Orain aipatu dudan Marisolen pedagogiaren ezaugarri hau adierazten duten pasadizo asko aurki daitezke bere errelatoetan, baina bakarren batzuk besterik ez ditut hemen jasoko. Lehenengoa, “Ens direm tots ESE!” izenburutzat daraman pasadizoa norberaren identitatearen aldeko aldarrikapen sendoa da. Bigarren pasadizoak, Aleix deituriko mutiko baten ahots tinkoa jasotzen du errespetuzko espazio batean. Hirugarrenean, Marisolen hurrek ziurtasuna erakusten duten esperientzia jasotzen da. Ondorengo pasadizoan, haur hauek beste pertsona batetik antzemandako errespetu falta salatzen da. Eta azkenengoak, haiek egindako esku-hartze aktibo baten istorioa biltzen du.

Pasadizo 1: *Ens direm tots ESE!/ Guztiei HORI bezala deituko digute.*

Marisolen gelan haurrak institutura joatea zer sentipen ekartzen dizkien eztabaidatzen daude, unibertsitatean izandako esperientzia batean pentsatzeak elkarrizketa honetara eramane die. Aleixek, Janak eta gainontzeko hurrek institutura joatean biziko dituzten aldaketei buruz hitz egiten dute.

Badirudi Aleix izeneko mutikoari heldua izatearen ideia eta motxila eramatea gustatzen zaiola, etxeko-lanak egitea, ordea, ez hainbeste. Jana izena duen neska, aldiz, elkarrizketa gaiari buruz iritzi indartsu bat duela dirudi. Neska honek dio institutura joatea ez dela dibertigarria, guztiei *hori/ese* deituko dietelako. Berak ematen duen argudioa errealitatearekin bat egiten du, izan ere, institutuan ikasleak *ese* bezala tratatuak izaten dira:

“Aleix: jo vull anar a l’institut i tenir quinze anys por las mochilas guapísimas, los deberes es lo malo porque hay que hacer muchas cositas, creo que lo retiro.

Jana: *no és molt divertit anar a l’institut, ens direm tots ESE!”* (Anguita, M; “Anda, deja que te acompañe”; argitaratu gabea).

Elkarrizketa espazioan, Janak bere senetik ateratzen dion bizipen hori beste guztiei kontatu die. Aitorpen honen bidez; berak besteengandik, helduengandik, sentitzen duen errespetu falta salatzen du. Janari bere izenarengatik deitzen ez diotenean gaizki sentitzen da, bera Jana delako.

Neskatoak bere identitate propioaren aldarrikapen argia egin du besteen errespetua jasotzeko eta den pertsona izateko eskubidearengatik borrokatuz. Era honetan, beste haurrei bere pentsamenduari buruz hausnartzera gonbidatu die.

Pasadizo 2: *Pues, a mi no me gustas./ Ba nik ez zaitut gustuko.*

Elkarrizketa berean Aleixek, Marisol tartean sartzen duen; aitorpen bat egiten du. Gelako haur gehienek Marisol maistra ona dela dioten bitartean, Aleixek iritzi ezberdina dauka. Marisolek haurrei galdetzen die ea zergatik dakiten maistra ona dela, bere posizioa argudiatu dezaten. Aleixek bere iritzia emateko espazioa aurkitzen duenean, Marisol ez zaiola gustatzen iragartzen du:

“Carla: sort que et tenim a tu que ets una bona mestra ...

Marisol: com se sap si sóc o no una bona mestra?

Aleix: pues, a mi no me gustas ...” (Anguita, M; “Anda, deja que te acompañe”; argitaratu gabea).

Bere pedagogiaren lerroak jarraituz, Marisol Aleixi pentsatzen duena adierazteko espazioa eman dio. Nahiz eta mutiko honen iritzia gehiengoaren aurkakoa den eta kutsu negatiboa izan dezakeen, maistrak haurraren iritzia errespetatu du.

Beharbada Marisolen jarrerak haurrei harritzen die, gelakide batek Marisol ez zaiola gustatzen esan duelako eta gehiengoak asko maite diolako. Aleixen hitzak entzun ditu errespetuzko eremu batetik bere aitortzea epaitu gabe, gelako haurrei aurkako iritziak errespetatu behar direla irakastea duelako xedetzat.

Pasadizo 3: Unibertsitatean topaketa bat gertatu da.

Marisolen haur-taldea unibertsitatera bisitan joan da eta han hurrek Arte Ederrak ikasten duten ikasleekin goiza pasa dute. Egunero ikusten duten eskolako ingurunea alde batera utziz, testuinguru berri eta ezezagun bat ezagutu dute. Haur hauentzat unibertsitatera bisitan joateak bere konfort gunetik ateratzea esan nahi du, espazioak handiak direlako eskolan txikiak diren aldera eta pertsonak ezezagunak direlako.

Bereizgarri horiek agerikoak direla kontuan hartuz; haur gehienek mesfidati, beldurti eta lotsati sentitu direla aitortzen dute. Izan ere, haiena ez den testuinguru batean egotea eta ezagutzen ez duten pertsonen aurrean hitz egitea beraietzat ez da kontu erraza.

Topaketan pentsatu direnean, jendaurrean hitz egitera ausartu direla nabarmendu dute. Hasieran hainbeste pertsonen aurrean hitz egitea lotsa eman die, helduekin tratatzeko ziurtasun faltatzat hartu daitekeena.

“Vau ser valents i vau parlar davant de tots i totes, moltes persones van parlar i d’altres també estàveu molt presents.” “Primer tenia vergonya però quan vam estar amb poquets vaug parlar més.” (Haur anonimoak)

Marisolek eta topaketako gainontzeko parte-hartzaileek ikasgelako espazioa moldatu dute eta berdintasunezko espazio bat eratu dute. Marisolek kontatzen duen moduan

espazio horizontal bat da, non aulkiak kuxinengatik ordezkatu diren oihal-etxola baten atmosfera lortzeko.

Modu honetan, unibertsitateko ikasgela hau haurrak eroso senti daitezen espazioan itxuraldatu dute. Hasiera batean jendaurrean bere iritzia emateko gai ikusten ez diren arren, haien ahotsek ziurtasuna eskuratzen dute. Marisolen gelako hurrek pentsatzen dutena publiko handi baten aurrean adierazteko ziur sentitu dira eta entzuleengandik errespetatuak izan dira.

Marisolek aurrera daraman pedagogian, hurrek haien aurkikuntzak eta misterioak besteekin partekatzea oso garrantzitsua da. Erlazio berriak eratzen dituzten kontaketa hauek, haurren artean elkarri ezagutzea posible egiten dutelako. Unibertsitatean gertatu den topaketan antzematen denez; talde honetako hurrek bere ikuspuntuan sinesten dute, hau ziurtasunez azaltzeko gai izan direlako.

Pasadizo 4: Cova de la Font Major-era egindako ateraldia.

Hurrek Marisolen konpainian Cova de la Font Major-era ateraldia bat egiten dute eta han nahiko haserre dagoen monitore batekin topatzen dira. Marisolek haurren hitzak aipatzen dituenean; ikertzea, esploratzea, ukitzea, usaintzea, hitz egitea, ... uzten ez dietela dio:

“Però, ens trobem una mestra enfadona, en paraules dels nens i nenes que no ens deixa investigar, explorar, tocar, olorar, parlar, ser... tot i així, ens espavilem per fer la nostra.” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 1).

Bere pedagogian besteenganako errespetua edukitzea oso garrantzitsua da, baina kobazuloan gertatu den pasadizo honetan haserre dagoen monitore horrek hurrei ez die errespetuz tratatu. Marisolek gelan hartzen duen jarrera pareko batena da, hurrei errespetuz tratatu behar zaiela uste duelako. Bere aburuz, maistra ez dago haurren gainetik eta honek ez du agintariaren rola hartu behar. Pasadizo honetan, ordea, monitore horrek hurrei ezin dezaketena egin agintzen die eta hurrek atsekabetuak sentitzen dira.

Hurrek haiekiko errespetu falta sumatu duten ondorioz, monitore horrentzako eskutitz bat idaztea erabaki dute honek bere jarrerari buruz hausnartu dezan. Taldeko

haur guztien izenean, pertsoneri ongi tratatu behar zaiela esan diote. Haur hauek monitore honi ikasbide garrantzitsu bat eman diote, haiei errespetatuak izateko eskubidea aldarrikatuz. Horrela adierazten dute eskutitzean:

“Pensem que heu de cuidar com tracteu a les persones que us visiten i us ho diem perquè ho tingueu en compte i ens escolteu més. Ens sembla que l'actitud de la Montse durant la ruta és molt estricte.” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 6).

3.1.3. Autonomia.

Marisolek haurren proposamenak eta autonomia aintzakotzat hartuz gelan sortutakoa benetan gerta dadin ahalbidetzen du. Bera erdibidean kokatzen da; haurrei arazoekiko konponbidea mamurtua eman barik, beraiek hauekiko konponbidea aurki dezaten pistak emanaz eta laguntzeko prest azalduz. Marisol gelan gertatzen diren situazio batzuen bultzatzailea dela uste dut, bere taldeko haurrek situazio horien egileak diren arren.

Haur hauek ez dira asetzen bidegabekeriak jakitearekin, ez eta horren inguruan hitz egitearekin. Gainera, haiek zerbait egiteko inizatiba daukatenean erronka bukaeraraino eramango dutela bereizi behar da; norberak bere buruari zerbait gauzatzea proposatzen dionean, hau bukatzeko ahalmena dauka.

Haien autonomia gauzatzen da beraien kabuz erabakitzen dutenean gai direla bidegabekeri horien aurrean beraiek zerbait egiteko. Ez daude beste norbaitek zerbait egingo duenaren zain, beraiek era autonomo batean, beraiei bururatzen zaielako beste inoren bultzada jaso gabe, zerbait egitea erabakitzen dute.

Haurrei autonomoak izateko bultzada ematen dienean, arazo berrien aurrean ikasteko aukera ematen die. Honek besteen iritzi ezberdinak onartzea dakartza, gureaz gaineko beste iritzi batzuk baitaude. Nahiz eta egoera arazotsuak urratzaileak suerta daitezkeen, hauek aurrerakorrak eta ikaskuntzazkoak izan daitezke. Haurrek zer dagoen ongi eta zer gaizki badakite, balore etiko batzuetan oinarritzen direnean. Aldi berean, bere inguruko aldaketen agente sentitzen dute bere burua, bere ekintzen egileak baitira.

Hurrengo bi pasadizoetan, eskutitzarenean nahiz kurriloenean Marisolen gelako haurrek beraiengandik espero denaren baino haratago joaten dira; eta zeharbidez autonomoak direla argitzen dute:

Pasadizo 1: Mas presidentearentzako eskutitza.

Marisolen gelan gustuko ez dituzten diktadoreez eta bakea egiteaz hizketan ari dira, orduko berriak bultzatuta, eta Emmak, bost urteko neska bat, bere gelan guztiek presidentek direla dio guztiek agintzen dutelako. Neskak bakea egiteko agintzen dutela argitzen du, ez ordea guda sustatzeko:

“Emma: En esta clase todos somos presidentes, porque todos mandamos. Pero no nos gusta mandar para la guerra, nos gusta mandar para la paz...” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, eskutitza dokumentua).

Marisolek egiten duen eskola motan, haurrak errespetuzko espazioetan mugitzen dira eta herritarren eskubideak zaintzen dituzten baloreak ikasten dituzte. Emmak eta bere gelakideek munduko gudak oraingo arazoa direnaren iritzi berekoak dira, berriz arazo horren partaide sentitzen direla eta honi aurre egiteko gai direla erakutsi dute.

Izan be, haur hauek arazo hau konpon dezakeen proposamen bat egiteko inizatiba izan dute; eta Emmak egindako aldarrikapenaren ildo jarraituz guztien artean Mas presidenteari eskutitz bat idatzi diote. Eskutitz honen bidez, haurrek Kataluniako orduan presidentea zenari gutxiago agindu dezan eta jendeari ongi tratatzea eskatzen diote.

Idazle hauek argudio sendoak atxikitzen dizkiete haien iritziei, mundua pertsonarik gabe geratzen bada hutsik egongo dela esanez. Hortaz, gudaren alde egon beharrean bakea egin behar duela aholkatzen diote Mas-i:

“Et demanem que no manis tant perque sino tu ens tractes malament i has d’entendre que no has de manar tant ... Fan la guerra e maten a la gent i això no pot ser perque sino queden mes poquetes persones i al final si queden zero persones el planeta estara destruit i les persones extingides. Fem la pau. T’enviem uns senyals que ens hem inventat per dir a tot el mon que no siguin perillosos i per dir prohibit la guerra.” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, eskutitza dokumentua).

Pasadizo honetan Marisolen hurrek antzeman duten gure gizartean ematen diren bidegabekerien aurrean esku-hartze aktiboa egitea erabaki dute, guden ondorioz mundua buka daitekeela kezkatzen baitie. Hori dela eta, zuzen zuzenean Mas presidentearekin kontaktuan jarri dira eta honek eskutitzari erantzun die.

Azken batean, Emmak eta bere gelakideek eragiten dizkieten arazoei konponbideak aurkitzeko gai dira eta bere inizatibarekin autonomoak direla begien bistara ipini dute.

Pasadizo 2: 1.000 kurrilo egitea erabakitzen dutenean.

“Voladores y voladoras misteriosos” bezala aurkezten den haur-taldeak Sadako Sasaki izeneko neskato japoniarraren pasadizoa ezagutu dute.

1953. urtean Sadako odoleko minbiziaz gaixotu zen, Hirosimako lehergailuak eragindako erradiazio efektuen ondorioz. Neskatoak paperezko 1.000 kurrilo egitea erabaki zuen; kondaira japoniar baten esanetan paperezko 1.000 kurrilo egiten dituen edozeinek desira bat eskatzeko aukera izanen duelako. Leuzemiak bere bizitzarekin bukatu zuen baino lehen, Sadakok 644 kurrilo egitea lortu zuen eta ondoren bere gelakideak 1.000. kurriloraino heldu ziren.

Hegalari misteriotsuek, Sadako bezalaxe, jomuga bat daukate buruan bueltaka. Haur hauek mundua kurriloez betetzearen erronka aurrera eramatea erabaki dute gudak jasan nahi ez dituztelako, eta beste hainbeste desira infinitu dituzte ere Marisolek kontatzen duenez:

“Nuestro objetivo es contar que nos proponemos llenar el mundo de grullas porque no queremos la guerra.” (Anguita, 2014, p.23).

Neskato eta mutiko autonomo batzuk aurkezten ditu Marisolek. Mugarrietaraino eramaten dizkieten erronkak gogoan dituzte eta hegan egiteko desira bizirik dute, metaforikoki esanda hegalariai dira. Halaxe, haur-taldearen izenaren esanahia argitzen du maistrak:

“Voladores y Voladoras Misteriosos. Este nombre habla de nuestro deseo de volar, de proponernos retos que nos lleven al límite y nos permitan ser intérpretes activos de nuestro mundo.” (Anguita, 2014, p.23).

Hegalari misteriotsuen pasadizoa martxan dago, haiek 3.000 kurrilo bukatzeko ahalmena dutela ziur daude. Esanahi indartsua duen erronka hau burutu dezaketela badakite, eta burujabeak diren horiek bere inizatiba begien bistara jarri dute:

“En el recuento final descubrimos que tenemos 2.690, y ese número nos lleva a decidir que queremos llegar a 3.000 en la tarde de la maratón, antes de colgar las grullas por todo el pueblo durante el día de la fiesta. Y así lo hacemos, llegamos a 3.000 trabajando intensamente, abuelos y abuelas, padres y madres, maestras y hasta bebés.” (Anguita, 2014, p.27).

Are gehiago, haur hauek ekimena beste pertsonengana zabaldu dute eta herri guztia inplikatu dute 3.000 kurriloraino iristeko. Ondorioz, gutxi batzuen erronka izatetik pertsona askoren erronka izatera pasa da; komunitateko erronka parte-hartzailea. Pasadizo honetan aurrekoan bezalaxe, Marisolen gelako haurrek beraiengandik espero denaren baino haratago joan dira eta bakea egitearen desirak komunitate mailan eragin itzela izan du.

3.1.4. Esperientzia/ jakinduria duena.

Marisolen pedagogian taldeko haur bakoitzaren bizitzako esperientziak oso garrantzitsuak dira, haurrek gela barnean edo kanpoan bizitzen dituzten esperientziak gehiago jakiteko motorra direlako. Egunenean egunean maistra honen gelan, haurren ikaskuntza enpirikoak pil-pilean daude eta gainontzekoei kontaktzen dizkietenean probetxuzko zerbait ateratzen dute, hots, ikaskuntza berri bat. Batzuetan esperientziak elkarrekin izaten dituzte, taldeko esperientziak, alegia.

Jarraian, Marisolen gelako haur baten esperientzia indibidual bat eta taldeko esperientzia bat aurkezten dira. Pasadizo hauen bitartez, maistra honen iritziz haurrek jakinduria eskuratzeko hartu behar duten bidea izandako esperientziak direla jakinean jartzen dut:

Pasadizo 1: Arnau izeneko haur batek, gelara zezen baten buru-hezurra eramaten duenean.

Arnau izeneko haur batek, gelara zezen baten hezurdura eraman du. Gainontzeko haurrei buru-hezurra erakusten dienean, bere osabak eman ziola kontaktzen die. Marisolen gelako haur honek inizatiba propioa izan du bere interesa besteekin partekatzean, izan ere, zezen baten buru-hezurra gelara eramatea erabaki du.

Pasadizoan murgilduz, Arnauk burua hutsik ez duela erakutsi du. Egia esan berak burua ideiez beteta dauka eta dakiena besteei kontatzeko nahia dauka, bidenabar esperientzia esanguratsu bat eraikitzen doa. Bere ikerketan sartuta dagoenean,

historiaurreko gizakiek zezenak ehizatzen zituztela kontatu die eta bat-batean ikasgelan eztabaida bat ireki da, gelakide batzuk historiaurrean nola ehizatzen zuten beste iritzi bat dutelako:

“L'Arnau ens porta un cap de toro que ha mort el seu tiet que treballa a un escorxador...”

- *Clar, jo menjo salsitxes.*

- *Jo pollastre.*

- *Però els toreros els esveren amb el color vermell.*

- *Hay unos toros embolaos que les ponen fuego en las banyes perquè es posin nerviosos.*

- *Els prehistòrics caçaven toros perquè tenien gana.*

- *Els toros són herbívors com les vaques però amb les banyes es defensen.”* (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 2).

Baina Arnauk historiaurrearengatik daukan interesa haratago doa, oraingoan primitiboek sua egiteko erabiltzen zuten teknikaz hitz egiten hasi dielako bere gelakideei. Primitiboek sua egiteko erabiltzen zuten materiala erakutsi die eta primitibo batean eraldatu da. Arnauk bere pentsamenduetan ziurtasuna dauka, bere ikerketak besteei kontatzen eroso sentitu delako. Laburbilduz, mutiko honi bete betean bizi duen esperientzia honek ikaskuntza berrietara eramane dio.

“L'Arnau també ens ha portat el necessari per fer foc i s'ha transformat en un primitiu!!!” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 3).

Pasadizo 2: Cova de la Font Major-era egindako ateraldia.

Hurrek Marisolen konpainian Cova de la Font Major-era ateraldia bat egiten dute, gelan historiaurreaz mintzatzen egon baitira. Bizimodu primitiboa haur hauen interesgunea izanda, kobazulo bat bisitatzearen esperientziak ilusionatzen die. Marisolek kontatzen du:

“Anem a la cova de la font major per viure a la pell com era la vida primitiva.” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 3).

Taldeko esperientzia honetan, hurrek naturaltasunez bizitzeari eta ikasteari bideak ebaki dizkieten mugarrekin topatu dira. Hortaz, guztiek batera izandako esperientziaz

mintzatu dira eta haien jarrera kritikoari buruz hausnartu dute. Gainera, historiaurreari buruz zituzten ezagutzak zabaldu dituztela eta bizimodu primitiboa nolakoa zen deskubritu dutela konturatu dira.

Marisolek eskola egiteko duen moduan, elkarrizketa elementu oso garrantzitsua da. Bakoitzak pentsatzen duena esaten badu, elkarren arteko komunikazioa erraza suertatzen baita.

“El diàleg a la tornada sembla que ens fa pensar més en la nostra posició crítica respecte a com no ens agrada sentir-nos tractats, sobre les dades que ens han ampliat, sobre prehistòria, les nostres descobertes ja havien anat molt lluny ...” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 4).

Pasadizo honek esperientziak, Marisolen gelan, duen esentzia argitzen du. Nahiz eta, kobazuloko ateraldia pasa den hurrek historiaurreari buruz ikertzen jarraitzen dute esperientzia ez baita bukatu eta ikasten jarraitzen dute. Hurrek bizitza primitiboaren ikerketa noraino ukitu dien pentsatu dute; hala nola, margolanak egin dituztenean, taldeko erakusketa prestatzean, basoa miatzean, ... Egoera eta leku guzti horietan dago haur hauen jakinduria eta oinatza.

“Mentres continuem indagant, pintant, muntem una expo per mostrar les nostres descobertes, anem al bosc per trobar eines, pedres ...” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 8).

3.2. Haurrak iritzia dauka.

Marisolen eskolan, hurrek gizartean gertatzen diren gertakizunen gaineko iritzi propioa eraikitzen ikasten dute. Gaurkotasun kontuetan ez ezik, bakoitzaren eta besteen afera sentimentaletan baita ere. Inguruan gertatzen denaren gaineko iritzi propioa bat izatean datza, gainontzekoez desberdintzeko eta iritzi aniztasun egoera baten aurrean eztabaidatzeko.

Eztabaidan hurrek bere iritzia aurkezten dute, norberaren iritziaren gaineko ziurtasuna erakutsiz. Marisolek, gelako eztabaidan, haur guztiei hitz egiteko aukera emanez, adierazpen askatasuna aldarrikatzen du. Haur hauek bere iritzia, besteen iritzi ezberdinen onarpenetik eta errespetutik, aurkeztu behar dutela badakite. Iritzi

aniztasuna errespetatzen ez den arte, elkarrekin egindako ikaskuntzak ez du zentzurik izango inolaz ere.

3.2.1. Interesduna.

Marisolen haurrak nonzeberriak dira, bere ingurunean gertatzen diren gertakizun eta istorioek interesa pizten dizkiete. Munduan gertatzen diren aldaketen eta gatazken testigu dira eta hauek zer dela eta ematen diren galdetzen diete bere baitari.

Bere interesak bizirik daudenean, beste edozein haurrari bezala burura galdera pilo etortzen zaizkie. Hauek galdera eragileak bezala ezagutuak dira, galdera bati erantzun posiblea aurkitzen dietenean beste galdera bat azaltzen zaielako. Haurrak curiositatezko labirinto bukaezin batean sartzen dira, non bere interesek ikaskuntza prozesu batean murgiltzen dieten.

Pasadizo 1: Zer da memoria ez izatea?

Behin, Marisolekin dauden hegalaria misterioetsuek zaharren egoitza bisitatzen dute. Núria Puig izeneko neskatilak bere aitona agurtzen duenean, antza denez honek ez dio guztiz ezagutzen; eta ondoren neskek Marisoli aitona memoria ez daukala kontatzen dio. Une horretatik aurrera, memoria ez izatea zer den gelako haur askoren interesekoa bilakatzen da. Marisolen haurrek memoria ez izatea zer den azaltzen dute, bere jakinduriatik:

“Núria Perés: Una vez lo conoces y otra vez no lo conoces.

Sergi Camps: Es cuando ves una persona que la ves y cuando ya no la ves nunca durante mucho tiempo, la memoria ya no hace la persona y se escapa la persona.

Aïna: La yaya Lola y el abuelo Pepe todavía tienen memoria pero son viejitos, aunque no tanto.

Aitor: Si no tiene memoria, el abuelo de Núria no puede hacer las grullas.

Ese último comentario nos lleva a pensar qué hace nuestra cabeza para hacer las grullas.

Marc Arranz: Cuando creemos que se escapan, las palabras se esconden en un sitio del cerebro para que no las digas.” (Anguita, 2014, p.24-25).

Núria, Sergi, Aïna, Aitor eta Marc lau edo bost urte dituzten neska-mutilek memoria ez izatea zer den elkarrizketaren protagonistak dira; afera hau argitzean interesatuak baitaude. Testuingurua aukerakoa izan da, memoriaren kontuan haurren kuriositatean bihurtzeko. Izan be, zaharren egoitzan pertsona heldu askorekin topatu dira eta Núria Perés-ek esandakoa bultzatzailea izan da oso “Zer da memoria ez izatea?” galdera haurren interesen artean suertatzeko.

Haurren interesak bizirik dauden pasadizo honetan, bakoitzaren esperientziatik jasotakoa, bakoitzak memoriari buruz dakiena besteei kontatzen die. Modu honetan, guztien artean buruan daukaten kezka argitzearen hurbilago daude. Dena den, Aitorren, elkarrizketa honetako protagonista bat, iruzkina besteekin alderatuz aparta izan da. Lau urteko mutikoak Núriaren aitona memoriarik ez badauka, kurriloak ezinen dituela egin argudiatu du.

Marisolen eskolan, haurrak interesdunak dira eta kontatu berri dudan pasadizoan bere interesak anitzak izan ditzaketela antzematen da.

Pasadizo 2: Què són els graus?/ Zer dira graduak?

Marisol eta haurrak elkarrizketa interesgarri batean murgildurik dauden pasadizo honetan. Gerard izeneko mutiko batek graduak zer diren jakin nahi du, bere gelakideei galdetzen die eta. Haur batzuk graduak zer diren azaltzen diote, adibidez, Aleixek esaten dio graduak kriston hotza egitea direla. Beste haur batek dio, Pol, graduak hotza edo beroa egiten duen esaten duen aparatua bat direla:

“Gerard: què són els graus?”

Aleix: els graus són un fred que pela.

Gerard: els graus no sé si són els daus de la oca o són els graus.

Pol: els graus són com una maquineta que diuen si fa fred o calor. Posen un zero per dir que està baix zero o està a dalt.

Aleix: els graus són per dir si fa fred o fa calor.

Emma: el termòmetre ens confonem perquè no sabem si és el d'estar malalt o el de la temperatura.

Gerard: l'aire està malalt?

Aleix: ¿i si es el sol que está malito?

Genís: el sol es refreda amb l'aire.

Javi: les ratlletes son para separar, sube y hace la temperatura que hace.

Marisol: què separen les ratlletes?

Els números” (Ratolins i ratolines de la pau, 2010, para. 6).

Gerard graduak zer diren jakitean oso interesatua dagoela dirudi, eta gainontzeko gelakideak dakitenarekin erantzuten saiatzen dira. Haur bakar baten interesa izaten hasi dena, haur askoren interesa izaten bihurtu da. Izan ere, orain termometroaren marrek zer adiearazten duten jakin nahi dute. Galdera eragile bat agertu da, Marisolen laguntzaz, termometroko marrek ea zer bereizten duten.

Marisolen irakasteko estiloa dela eta, haurrek tankera honetako galderak burutzen dituzte; interes propioetan sorburua duten horiek.

3.2.2. Gogoetatsua.

Marisolen pedagogian hausnarketarako gaitasuna eskuratzea ikaskuntza bidearen koska da, haurrek ikusten dituzten gertakizunei buruz hausnartzen badute iritzi propioaren bilaketaren norabide zuzenean daude eta. Ariketa honetarako, jasotako informazioan pentsatzea premiazkoa da; eta Marisolen gelan galdera baten bitartez egiten dute: “Zer dio nitaz artelan/ gertakizun/ berri/ honek?” Batzuetan, haurrentzat galdera hau egiteak erraztasun gehiagoz hausnartzera ahalbidetzen die.

Gogoetatsuak diren haurrak jomuga berriak izan ditzakete, ezagutzen dutenari buruz hausnartzen dutenean galdera berriak sortzen zaizkielako. Askotan, gizarteko afera garrantzitsuei buruz hausnartzen dute besteen eskubideak eta ongizatea kezkatzen dielako. Alboan doan maistrak soseguz ibiltzera eta ikusten dutenari buruz hausnartzera gonbidatzen die, Marisolek egiten duen bezala.

Haur gogoetatsuak nortzuk diren zehazten dudana bitartean, Marisol gogoetatsu agertzen da ere bai. Izan ere, munduari buruz mugarik gabe galdetzea ea ikastea izanen den galdetzen du; galdera transzendentak eta bizikidetza baloretan oinarritutako ikasketa amaigabe bat bezala konprenitzen dudana:

“Interrogarse sobre el mundo sin límites, ¿no será esto aprender?” (Anguita, 2008, p.13).

Hala eta guztiz ere, gizartean hurrek galdera ugari egiten dituztela egungo kexa da eta modu honetan gurea den jarrera hori mugatzailea da, haurren kuriositateari mugak jartzen dizkiogulako. Ez da gure egitekoa haurren interes eremuen norabidea zehaztea, baizik eta aske uztea berea egin dezaten.

Bakarkako edo taldeko gogoetak egoten dira Marisolen gelan, testuinguruaren arabera bestelakotzen direnak. Oraingo honetan, Marisolen haur taldeak gelan egindako hausnarketa sakon batzuk jasotzen dituzten bi pasadizo aurkezten ditut:

Pasadizo 1: Els quadres són com finestres./ Margolanak leihoen modukoak dira. Marisolen gelan, haurrak Jesús Beloso artistarekin hizketan egon dira eta honek esan die margolanak leihoen modukoak direla. Neska-mutilek Bellosok esandakoari buruz pentsatu dute eta bere gogoeta egin dute. Artelan bat ikustean honek norberaz zer esaten duen, norberari nora egiten dion bidaiatzea eta zer leiho irekitzen dion pentsatu behar dela hausnartu dute. Marisolek haurren hitzak jasotzen ditu:

“Els ratolins i ratolines hem viscut intensament la festa cultural de l'escola, ens ha permet mirallar-nos en les nostres projeccions i en les dels altres i pensar què diu de mi aquesta obra? A mi on em fa viatjar? Quina finestra m'obre?” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 2).

Jesus Bellosok esandakoaren harira, haur gogoetatsuen talde honi galdera eragile bat azaldu zaio. Beraiek margolariak ea zergatik erretratuak marrazten dituzten jakin nahi dute eta interes berri honek urruneko bidai batera eramaten die:

“La pregunta de per què els pintors i pintores pinten retrats ens ha fet viatjar lluny”. (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 3).

Pasadizo honetan haurrak hausnarketarako gaitasuna daukatela agerian utzi dute, beste pertsona batek esandakoa gogoan hartu dutelako eta horri buruz pentsatu dutelako. Marisolek duen irakasteko estiloaren ondorioz, hurrek planteatzen dituzten gogoeten bitartez ikasten dute.

Pasadizo 2: Pintem la pau per pensar-nos./ Bakea koloreztatzen dugu, gure burua pentsatzeko.

Nabarmena da bakea Marisolen gelako haurren interesezko kontua dela eta pasadizo honetan bakea beraientzat nolakoa den kontatzen dute. Bakea marraztea bururatzen zaie, beraientzat bakea zuria, urdina, berdea ... izan daitekeelako. Baina azukrea eta betadinea bota behar diote, gudek eragindako zauriak senda daitezten, argudiatuz. Marrazkietan bakearen sinboloak egiten dituzte, esaterako, betadinez betetako bihotz gorriak. Marisolek haurren gogoeta erredakzioan bihurtu du:

“Vam decidir pintar la pau, compartint que la pau pot ser blanca, blava, verda ... Que pintariem amb sucre i amb betadine per curar les ferides de les guerres, vam fer símbols de pau, molts nens i nenes demanen vermell per fer cors que expressen que també són de pau, d'estimar ...” (Ratolins i ratolines de la pau, 2010, para. 6).

Neska eta mutil hauek gogoetatsu oso azaldu dira, bakea beraientzat zer esanahi duen pentsatu dutelako. Gainera guztiena izan den hausnarketa marrazkietan irudikatzen ausartu dira, non betadinea erreminta esanguratsua izan den.

Marisolen gelan inguruko gertakizunei buruz pentsatzea oso garrantzitsua da, izan ere, gauzak zergatik gertatzen diren norberari galdetu behar dietela erakusten die maistra honek. Bere gelako haurrek munduari eta norberari buruzko gogoeta sakona egiten dituzte, gertatzen dena hobe ulertzera laguntzen dielako.

3.2.3. Arazoak ebazteko gai dena.

Arestian Marisolen gelako haurrak burujabeak direla iragarri dudanean, egoera arazotsuen aurrean ausart azaldu diren haurren hainbat pasadizo sartu ditut. Oraingoan haur autonomoak arazoak ebazteko gai direnaren ideari berriro ekiten diot.

Haurrek dituzten interesen arabera, bidean zehar hartzen dituzten erabakiak eta bidegurutzeak bere ikaskuntzaren norabidea zehazten dute. Baina bidezidorrak hartzeak eta gauzak presaka egiteak, bidaia motelduko duela jakinarazten die Marisolek. Bere pedagogian zerbaiten emaitza eskuratzea ez da garrantzitsua, baizik eta haurrek pausoz pauso ibiltzen duten bidea. Prozesuan arreta jartzen dutenean, ez ordea lortu dezaketen emaitzan, haurrak arazoekin topatzen dira. Azken batean, hau da ikaskuntzaren xarma burujabe izaten ikastea zailtasunak gainditzeko.

Jorge Drexler kantautoreak haurrak mugitu behar diren espazio hori definitzen du; gertatzen denaren korapiloa amaiera baino gehiago maitatzea dioenean. Drexler-ek proposatzen duen gogoeta gure interesez disfrutatzea eta ikaskuntza berriekin txunditzea bezala ulertzen dut. Hona hemen abestiaren zatitxo esanguratsua:

“Ir y venir, seguir y guiar, dar y tener

Entrar y salir de fase

Amar la trama más que al desenlace

Amar la trama más que al desenlace” (Drexler, 2010, 2 track).

Ondoren, egoera berri eta ezezagunetara aurre egiteko kemena erakutsi duten haurren pasadizo batzuk hautetsi ditut:

Pasadizo 1: Ahora toca el “diez cien”./ Orain “hamar ehun” doa.

Marisolen gelako hegalaria misterioitsuak kurriloen istorioaren harian ikasten jarraitzen dute, eta oraingoa zenbakiak ikertzen daude. Joaquin izena daukan haur batek, berak 1.000 kurrilo eta beste batek beste 1.000 kurrilo egiten baditu zer gertatuko zen planteatzen du. Orduan, Marc Arranzek hori “mila mila” izango zela argitzen dio. Marisolen hurrek dioten bezala, “números de decir mucho” zenbakiekin ari dira:

“Sara: Yo sé contar 100-200-300 ...

Lo empieza a escribir en una pizarra y entre ella y Marc llegan hasta 900. Marc dice que ahora toca el “diez cien” y al representarlo escribe “1010”. Iker dice que él lo haría de otro modo ..., pone un diez y le añade dos ceros.

Marc Arranz: ¡Yo he visto que Iker no se ha fijado bien en el 10 cien y ha hecho el 1.000! ¡Y después del novecientos toca el diez cien!” (Anguita, 2014, p.26).

Horretan, ehunaka zenbatzen daude eta 1.000 zenbakira heltzen direnean Marc izeneko haurrak “hamar ehun” zenbakia tokatzen dela dio. Are gehiago, mutikoak zenbakia adierazten duenean “1010” idazten du. Baina Iker, bere gelakidea, bera beste modu batean idatziko zuela dio eta hamar bat jartzen du eta bi zero gehitzen dizkio.

Ikerrek, Marc “hamar ehun” zenbakiarekin daukan nahaspila, argitzen saiatzen da eta “números de decir mucho” honekin azaldu den arazoa konpontzeko gaitasuna erakutsi du. Iker burujabea da. Izan be, bere gelakidearen akatsa identifikatu du mila zenbakia

“1010” bezala irudikatu ordez; hamar idatziz eta horri bi zero gehituz mila zenbakia lortzen dela azaldu duenean. Marisolen eskolan, haurrak topatzen diren arazoak aztertzerantz paratzen dira. Haien badakite arazoa konpondu ezean, bidea txarto aterako dela.

3.2.4. Ikertzailea.

Munduko eta zehatzago esanda bere bizitzaren esploratzaileak dira Marisolekin dauden haurrak, estalita topatzen dituzten misterioak desestaltzen dituztelako. Burua galderez eta zalantzez josita dutenean, ikertzaile sutsuetan bihurtzen dira. Haien interesen kontuei buruz ikertzen dutenean, ikerketak kutsu pertsonala hartzen du hau egitearen ekimena haiena izan delako.

Haur hauek ez daude geldirik, interesatzen zaizkien gertakizunen eta istorioen informazioa bilatzen dute eta. Beste modu batean esanda, haien pentsamendua etengabeko mugimenduan dago eta perspektiba ezberdinetatik kontatutako gertakizun edo istorioak ezagutzen dituzte; iritzi anitzak entzutea ahalbidetzen diena.

Begiek jasotzen duten informazioa ez da nahikoa, haien kontuaren sakoneraino iritsi nahi dute eta horregatik garuna funtzionamenduan izatearen arrazoia diren interes eta zalantzak ikertzen dituzte. Bere interesei zentzua aurkitzea, xede dute haur hauek.

Haurrek taldeko edo bakarkako ikerketetan murgiltzen dira, baina Marisolen gelan gertatutako pasadizo batzuk irakurri ditudanean ikerketa gehienak taldean partekatutakoak direla antzeman dut. Haur batek ikerketa bat hasten duen arren, bere gelakideei kontatzen dien unetik aurrera taldeko ikerketan bihurtzen da guztiek tartean sartzen baitira. Argi eta garbi ikus daiteke egoera hori Marisolen haurrek protagonistak diren “Neurrien asaldura” pasadizoan. Bakarkako ikerketari dagokionez, Pol deitzen den mutiko baten pasadizoa adibide aproposa da:

Pasadizo 1: Neurrien asaldura.

Maria deitzen den neskatok gainontzeko gelakideetan neurketarekiko interesa, bere ahizpa Juliaren neurriaren errelatoarekin, sustatu duela dirudi. Marisolen gelako neskatok honek bere ahizpa zenbat neurtzen duen jakiteko interes handia dauka eta halaxe, metro batekin bere ahizparen altuera ikertu du. Gelan besteekin bere ikerketa

partekatu duen unetik aurrera, besteek neurrien gaineko asaldura izan dute eta munduko gauza batzuen neurriak ezagutu nahi izan dituzte:

“Fa temps que s'ha instal·lat a l'aula la febre per mesurar ... Tenim instal·lats des de principi de curs interrogants sobre les mides d'algunes coses del món que se'ns han fet especials”. (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 2).

Dagoeneko, taldeko ikerketari hasiera eman diote eta kasurako; sekueiez, bale urdinez, capibar-ez ... mintzatzen egon dira. Guztiek elkarrizketan parte hartzen dute eta galdera eragile bat azaldu zaie; ea haiek zenbat neurtzen duten eta interes honek beste galdera bat eragin du: “Hazi gara?” Haur hauek ikerketa prozesu bat daukate egiteko, pertsonak eta gauzak neurtzeko duten zoramena ase behar dutelako.

“Així hem anat parlant de seqüoies, balenes blaves, capibares, rex ... I nosaltres quant mesuram? Hem crescut?” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 2).

Marisolen eskolan, haur ikertzaileek ikerketetan behar adina material erabiltzen dute. Pasadizo honetan, haurrak metroaz baliatzen dira interesatzen zaizkien objektu guztiak neurtzeko. Bakoitzak berea egiten duen arren, guztiek batera mundua neurtzen dute. Esaterako, haur batzuk gela zenbat neurtzen duen jakin nahi dute eta haien artean lagunduz mahai gainean igo dira metroarekin gelaren altuera neurtzeko:

“La febre per mesurar s'installa en el nostre món de conèixer amb passió, volem saber l'alçada i la llargada de la nostra aula, què ens hi cap i què no ...” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 2).

Pasadizo 2: Pol izeneko mutikoak 50 eta 50 100 dela deskubritzen du.

Hau aurreko pasadizoaren jarraipena da eta neurrien asalduraren ondorioz, Pol izeneko mutiko batek egin duen beste ikerketa bat eman da. Capibara-k, animalia marraskari bat, 50 zentimetro neurtzen duela deskubritu duela besteei kontatzen die. Animalia honek zenbat neurtzen duen ikertu duenean, berrogeita hamar ehunen erdia dela konturatu dela esaten die. Pol-ek berrogeita hamar eta beste berrogeita hamar ehun egiten dutela azaltzen die bere gelakideei; errelatoan Marisolek jasotzen duena:

“El Pol ja fa molts dies que ens descobreix que l'alçada del capibara 50 és la meitat de la longitud 100, ens ensenya que és la meitat del metre dient 50 i 50 100”. (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 2).

Marisolen gelako haur hau zenbakien munduan sartu da, eta bera bakarrik berrogeita hamar eta beste berrogeita hamar batuz gero ehun emaitza ateratzen dela deskubritu du. Pol, bere ikerketa gainontzeko gelakideekin partekatzeko prest azaldu da.

Beste une batean, Pol-ek ikerketa prozesua berarentzat esan nahi duena adierazten du. Marisolek egiten duen engunerokoa haurren ikerketen lekukoa da eta horregatik dio Pol-ek hori. Marisolek haurrak emandako azalpena konpartitzen du:

“Pol expresa que cuando miramos el diario estamos investigando la vida y algunos niños y niñas regalan ideas como la de que “el mundo somos nosotros”. (Anguita, M; "Cartografías de lo posible"; argitaratu gabea).

3.2.5. Ideien arteko erlazioak egiten dituen.

Marisolek duen lan egiteko estiloaren ondorioz, haurrek ideien arteko erlazioak egiten ikasten dituzte. Bere aburuz, ideien ezberdinen arteko erlazioak bilatzen jakitea norbera eta besteak hobe ulertzeko baliogarria da. Ideien arteko erlazioak egiteko ez dago arau zehatzik, norberak bere buruan pentsatu dituen erlazioak egiten dituelako eta guztiak posibleak dira argudio bat ondoan eramanez gero.

Askotan, maistra honen hurrei etxean, eskolan edo beste eszenario batean izandako esperientziak edo bizipenak gogora etortzen zaizkie. Iraganeko oroitzapen eta momentuko ikaskuntza berrien arteko loturak eratzen dituzte, Marisolek erakutsi dien moduan. Nahiz eta, haur batek bi ideien zehatzen arteko erlazio bat egiten duen; agian beste haur batek bi ideien horien arteko beste erlazio posible bat ikusten du.

Marisolen gelan taldeko elkarrizketarako unea zeharo funtsezkoa da, ideien jarioak eztabaida sutsua dakartzatelako eta eztabaidan da, zehazki, non ideien arteko konexioak eratzen diren; haur batek esandako ideia beste batek uste duenarekin konektatua egon daitekeelako. Eta modu honetan, elkarrekin egindako ikaskuntza oso aberatsa da.

Jarraian, Marisolen gelako haur batzuk ideien arteko erlazioak egiten dituzten pare bat pasadizo badatoz:

Pasadizo 1: Dibuixem com les neurones enviem pensaments./ Neuronek pentsamenduak nola bidaltzen dituzten marrazten dugu.

Marisolen taldeko neska-mutilek Pablo Picasso artistak esandako ideia bati buruz pentsatu dute. Begi bistan zeukana margotu ordez, pentsamenduan zeukana margotzen zuela zioen Picassok. Margotzen dutenean ea pentsatzen duten edo ez duten pentsatzen eztabaida honen oinarria da:

“Jesús: No vaig pensar res quan pintava això. Només pinto.

Aleix: Has de pensar sinó no pintes res.

Jesús: Penso però no tinc una idea abans.

Arnau: No pots dibuixar sense pensar.” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para.3).

Iritzi ezberdinak dituzten arren, pentsatu gabe margotzea ezinezkoa dela ondorioztatzen dute. Beste modu batean esanda, margotzearen ekintzak dakartzan pentsamenduzko prozesu konplexuari buruz hausnartzen dute.

Are gehiago, beraientzat pentsatzearen ekintza edo prozesu kognitiboa bezala ezagutzen dena marrazki batean irudikatzen dute. Bakoitzak, bere esperientziatik, neuronek garunera pentsamenduak nola bidaltzen dituzten irudikatzen du.

Egia esan, bere irudikapenak oso interesgarriak dira pentsamenduzko prozesuaren konplexutasuna agerian geratzen delako, eta pentsamendu-prozesuaren zentzua oso ongi barneratu dutela antzeman daiteke. Ideien arteko erlazioak lerroekin lotu dituzte eta bidenabar, ezagutzen arteko konexioak elkartu dituzte.

Pasadizo 2: Mapa para relacionar conocimientos./ Jakin-minak erlazionatzeko mapa.

Isabel izeneko haurrak Honolulura joan nahi duen istorio baten ondorioz, azken aldian eskuratu dituzten jakin-minak mapa batean adieraztea bururatzen zaie Marisolen gelako haurrei. Erreferentzia-puntu gako batzuk aukeratu dituzte, momentura arte ikasi duten guztia eta irudikatzen dituzten konexio anitzak azaltzeko; urpe-ontziak, marmokak, musika, zenbakiak, sukaldaritza, giza gorputza ... (Anguita, 2008, p.12).

Azken buruan, haur hauek mapa kontzeptual bat egiten dute dituzten jakin-min arteko erlazioak geziekin konektatuz. Egindako begi-irudikapena aztertzeke gelditzen direnean, labirinto baten modukoa dela diote.

Marisolen eskolan hurrek tankera honetako mapa kontzeptualak burutzeko gai izatea ohikoa da, kontuan izanik ideia eta jakintzen arteko erlazioak eginez ikasten dutela.

Pasadizo 3: Relacionem imatges./ Irudiak erlazionatzen ditugu.

Pasadizo txiki hau Picasso tartean dagoeneko pasadizoaren ondorengoa da, Marisolen gelako hurrek erakusketa bat prestatzen dute eta. Haur hauek ezaugarri berdin bat partekatzen duten irudi ezberdinak erlazionatzen dituzte. Irudien arteko erlazio-prozesu honek norberaren izaera egindako aurkikuntzekin bateratzeko balio du. Marisolek pasadizoa errelatatzen du:

“En el muntatge de la expo i en el procés ens submergim en relacionar imatges des de les nostres subjectivitats i a partir de les nostres descobertes”. (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 4).

Oraingo honetan dantzariet mintzatzen daude Degas margolariaren obra famatu batzuk ezagutu baitituzte, esate baterako, *La clase de ballet* (1871-1874). Margolan horretan agertzen diren dantzarien antzekoak bilatzen dituzte; dantzari baten antzeko posizioa duten eskultura batzuk aurkitzen dituzte eta halako irudiak dituzten libururen bat ere.

Eta ballet-aren ideian sakonago pentsatzen dute marrazkien bidez dantzariak irudikatu dituztelako eta gelako neska batek ballet-eko klaseetan egiten dituzten posizioak gainontzekoei erakutsi dizkielako. Marisolen eskolan ideiak eta irudiak erlazionatzen ikasten dituzte, pasadizo honetan bezalaxe.

3.2.6. Interpretatzailea.

Marisolen pedagogian, informazioa interpretatzen jakitea gelan ikasten den zerbait da. Hurrek berri bat irakurtzen dutenean edo istorio bat entzuten dutenean, bere interpretazio propioa gauzatzeko gai izan behar dira.

Adibidez, bi hurrek testu berdina irakurri dute eta testuak diotenaren azalpen bat ematean eskatzen diegunean bakoitzak bere modura egiten du. Arrazoia argia da, haur

batek izandako esperientzia batean pentsatu du eta testua bere jakin-minekin ulertu du eta beste haurrak, ordea, guztiz ezberdina suerta daitekeen esperientzian pentsatu du. Beraz, informazioaren interpretazioak errealtatearekin ukimen bat dauka, hau da, interpretazio oroko errealtatean sustapena dauka.

Haur hauek, bere esperientziaz lagunduta egiten dituzten ikerketen interpretatzaileak dira. “Zer dio nitaz artelan/ gertakizun/ berri/ honek?” askotan bere buruari egiten dioten galdera da, bere esperientziaz informazioa interpretatzeko galdera hausnartzaile bat dena. Marisolek hezten dituen haurrak interpretatzaileak dira, begibistan dagoen informazioa baino haratago irakurtzeko gai direlako, eta besteek diotena interpretatzeko abilitadea dutelako.

Marisolek bere hurrekin interpretatzeko gaitasuna jorratzen duenean, Jacques Rancière filosofo frantsesaren ideietan pentsatzen du. Ranciérek komunitate emantzipatu bat, narratzaile eta interpretatzaileen komunitate bat dela dio. Maistra honek haur burujabeak hezten ditu, bere bizitza errelatatzeko eta interpretatzeko askatasuna emanez.

Informazioa interpretatzeko eta itzultzeko gaitasuna daukan haur baten pasadizoa dator orain:

Pasadizo 1: *Ens pintem com a primitius./ Primitiboak bezalaxe margotzen dugu.*
Hainbeste pasadizotan jadanik agertu diren hurrek ea margolari askok zergatik erretratuak eta autorretratuak egiten dituzten galdera buruan bueltaka daukate. Marisolek haurren hitzak jasotzen ditueneko dio:

“Comencem a preguntar-nos per què els pintors i les pintores fan retrats i autoretrats i per què els fan tan diferents ...” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 3).

Gelako norbaitek dio primitiboek kobazuloetan margotzen zutela eta Emma izena daukan neskatxa batek komunikatzeko eta zer ehizatu zuten kontatzeko egiten zutela argudiatzen du.

“Però els primitius pintaven a les coves ... L'Emma diu que li sembla que per comunicar-se, per explicar el que havien caçat ...” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 4).

Antza denez, Emma gaur egungo margolarien autorretratuak primitiboek kobazuloetan egiten zituzten irudikapenekin alderatu ditu. Modu honetan, primitiboen margolanen zergatia interpretatzen jakin du. Emma interpretatzaile azaldu da, bere jakin-minetatik primitiboek kobazuloetako hormak komunikatzeko xedearekin margolanekin betetzen zituztela konprenitu duelako.

Emmaren interpretazioari esker, gainontzeko gelakideek diote beraiek ere primitiboak bezala margotzen dutela, helburu berdinarekin, alegia. Marisolen gelako haurrek esan nahi dutena da komunikatzeko eta bere ideietan pentsatzeko margotzen dutela.

“Ens pintem com a primitius, pintem com pintaven els primitius”. (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 5).

3.2.7. Ikastuna.

Arestian esan dudana bezala, Marisolen gelan haurrek esperientzien bidez jakinduria eskuratzen dute. Ikaskuntza prozesu honetan, haurrak ikastunak dira.

Marisolek dio gelako elkarrizketaren barruan, ikastea esperientzia afektibo bat dela. Haurrak bere ikaskuntza prozesuaren erantzule eta kontziente dira, ikasten duten hori sentitzen dute bere munduarekin konektatzen baitute. Elkarrekin, beste gelakideen alboan ikasten dute eta elkarri jakintzak irakasten dizkiete.

Ondoren, ikaskuntza prozesu bat egin dutela baieztatzen duten haurren pasadizoak jasotzen ditut:

Pasadizo 1: No somos pintores, somos niños./ Ez gara margolariak, haurrak gara. Marisolen gelako haurrek hainbat artisten artelanak ezagutu ondoren, beraiek ere tankera horretako margolanak egin ditzaketan zalantza dute. Aleixek, beste pasadizo batzuetan agertu den haur hori, beraiek Picassok margotzen zuen bezala ezin dutela margotu dio, ez direlako margolariak haurrak baizik.

“Al llarg del procés hem conegut diferents artistes i hem explorat les seves formes de fer art Picasso ens regala la pregunta de si nosaltres podríem pintar com ell i l'Aleix diu que no vamos a poder porque no somos pintores, somos niños... però vam aprendre”. (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 7).

Aleixek ikasi duenarekiko kontziente azaltzen da. Nahiz eta, margolanak egitea gustatzen zaion badaki Picasso edo beste margolari batzuk bezala ez duela margotzen. Marisolen pedagogian, haurrek badakite zer ikasi duten eta zer daukaten deskubritzeko. Norberaren ikaskuntzaren kontzientzia izateak, gehiago ikasteko gogoia sustatzen du.

Pasadizo 2: *Els nostres ecos a partir de les nostres idees sobre la pau.*/ Gure oihartzunak, bakeari buruz ditugun ideietatik aurrera.

Pasadizo honetan, gainontzekoetan bezala, “Ratolins i ratolines de la pau” taldeko haurrak dira protagonistak. Bakea egiten duten sagutxo hauek, kurtso osoan zehar ikasitakoaz hausnartzen dute eta bakeari buruz ikasi dutena olerki batean adieraztea erabaki dute. Marisolek kontatzen du:

“Aquests dies abans de vacances hem pensat molt en la pau, en què podíem fer nosaltres per tal que les persones s'escoltin, es mirin als ulls i s'ajudin sempre i no només perquè és nadal. El nostre poema parla de com a vegades la pau no sap fer la pau ens hem inspirat en altres poemes de Martí i Pol i Ernesto Guevara i hem anat creant els nostres ecos a partir de les nostres idees sobre la pau que ja fa molts dies que compartim”. (Ratolins i ratolines de la pau, 2010, para. 2).

Haur hauek mundua bakean izatea zein garrantzitsua den adierazten dute olerki honen bidez. Olerkiak egin duten ikaskuntza prozesua jasotzen du, baina are garrantzitsuagoa da olerkiak haiek bakea egitean sentitzen dutena oso ongi islatzen duela:

“De vegades la pau no sap fer la pau.

De vegades la pau s’escapa de puntetes i fa la guerra amb el món.

De vegades la pau té por de tu, te por de mi, té por dels nostres monstres amagats a la foscor.

De vegades la pau no la pots atrapar.

De vegades la pau és invisible.

De vegades la pau té els ulls de pluja i rellisca pels nostres dits.

Altres cops és Nadal al meu cor i la pau es torna blava, verda, blanca i té gust de sucre fina, cura las ferides de la foscor amb lluns nous que m'illuminen.

I diem les paraules màgiques altra vegada compartir, saber perdre, estimar, donar la mà, caminar plegats i descobrir de nou que la pau som nosaltres". (Ratolins i ratolines de la pau, 2010, para. 3).

Bakea egiten duten haur eta sagutxo hauek ikastunak dira, Marisolen gelan daudenetik. Elkarrekin egin duten ikaskuntza honetan, bakea beraiek direla ikasi dute.

3.2.8. Kritikoa.

Marisolen gelako hurrek jarrera apala izaten dute gizarteko egoera gaitzei buruz mintzatzen dutenean eta aldi berean, kritiko azaltzen dira ikusten dituzten desberdintasunen aurrean. Iritzi propioa duten pertsonak dira eta desegokiak aurkitzen dituzten egoerak salatzeke prest daude.

Kontuan izanda maistra honek hurrei ikusten eta kontaktzen dieten guztia ez sinestera irakatsi diela, ezin dira guztiaz fidatu. Hori dela eta, bere ideietatik pentsatua bestek kontaktzen diona zalantzan jartzeko ohitura dute. Desadostasunaren espazioa da. Egia hor dago, baina ikuspegi anitzetarako lekua ere badago.

Marisolen pedagogiaren ildoak jarraituz, tolerantziaren balorearen bitartez iritzi bakar bat ez dagoela hurrei jakinarazi behar zaie. Izan ere, bakoitzak bere iritzia dauka eta guztien ideiak besteenekin kasatu daitezke.

Hori dela eta, Marisolen hurrak gizarteko kontuekin konprometituak dauden pertsonak dira eta batzuetan berdintasun ezekin bukatzeko esku-hartzea beharrezkoa dela uste dute. Batzuetan gertakizunekin konforme ez egon arren edo hauek haien gustukoak ez direnean, kritiko azaltzen dira.

Pasadizo 1: Tots som presidents perquè tots manem./ Guztiok presidenteak gara, guztiok agintzen dugulako.

Marisolen gelan hurrak Ipar Afrikako diktadoreei buruz hizketan daude eta badirudi diktadoreek botere guztia izatearekin ados ez daudela. Berdintasun eza honen aurrean, haur hauek kritiko azaltzen dira agintea bakea egiteko dela ez gerra, ordea. Emmak, beste pasadizo batzuetako protagonista izan den neska, gelan guztiek

presidenteak direla dio guztiek agintzen dutelako.

“Emma: aquí tots som presidents perquè tots manem. No m’agrada que manem per la guerra m’agrada que manem per la pau.

Jana: que avorrits són els dictadors!!! Què marxin tots!

Emma: nosaltres som el món.

Jana: a mi no m’agraden i a tots els de la meua classe tampoc.” (Anguita, M; “Anda, deja que te acompañe”; argitaratu gabea).

Gerra eta boteretsuen agintea, gaurkotasunezko afera den horren aurrean hurrek iritzi kritikoa daukate. Bidenabar, salaketa hori taldean islatzen dute; haien aburuz gelan presidente bakarra ez dagoelako, guztiak presidenteak direlako eta agindu dezaketelako. Marisol en eskolan elkarren arteko errespetua izatera irakasten da, haurrak talde baten, munduaren, partaide senti daitezzen.

Pasadizo 2: Noves lluites nuclears, no gràcies!!!/ Borroka nuklear berriak, ez eskerrik asko!!!

Bakea egiten duten sagutxoak kritikoa dira, desadostasuna eragiten dizkien egoerak ezagutzen dituztenean. Pasadizo honetan, Sadako Sasakiren istorioaren harira energia nuklearraren ondorioak salatzen dituzte:

“Després ... Amb l'energia nuclear hem topat ... Ens recorda la història de la Sadako Sasaki ... Recuperem velles lluites, noves lluites nuclears, no gràcies!!!” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 5).

Marisol en gelan borroka kritikoa planteatzen dute, energia nuklearra, alegia. Gustatzen ez zaizkien egoeren aurrean, jarrera kritikoa eta esku-hartze aktiboa izateko gidatzen die Marisolek hurrei. Kasu honetan, halaxe izan da haurrak energia nuklearren kontra jartzen direlako.

3.3. Haurrak hitza du: Bere errelatoaren autore da.

Marisol gelako haur guztiak egoera batean edo bestean hitz egiteko aukera izateaz arduratzen da, hurrek hitza daukatela defendatzen baitu. Esku artean duen lan pedagogikoan, hurrei beraien hitza aintzakotzat hartzen dela ikustaraztea funtsezkoa

da. Lau eta bost urteko neskato eta mutikoen jakintza berriak eskuratzen dituzte, izan dituzten esperientziei buruz pentsatuz eta hauek besteei kontatuz. Beraientzat, errelatoak sortzea hitz egiteko modu naturala da.

3.3.1. Bidaiaria.

Marisolen pedagogiak “viaje del conocer” ideian jatorria dauka; emakume honi bidaiatzea asko gustatzen zaio eta makina bat bidaia egin ditu mundu osoan zehar. Pertsona bidaiari bat bezala definitzen da, egindako bidaietan bizitako pasadizoek eta esperientziek barrutik bete dizkiotelako eta bidenabar oroitzapen horietan pentsatzen duelako besteekin partekatzeko. Fernando Hernándezen alboan, Marisolek ezagutzaren bidaia hau definitzen du:

“Un viaje desde el dentro y desde fuera, en ese viaje hacia el nosotros.” (Anguita, Hernández, 2010, p.7).

Marisolek Indiara egindako bidaia batetik itzultzean egiten duen hausnarketa eta ondorengoko errelatoa, bere gelako haurrekin partekatu du. Loto loreak berak duen aurrera egiteko desira eta ikaskuntza berriak izateko nahia barne hartzen ditu.

“Yo volvía transformada por mi viaje a la India. De su gente me habían impresionado sus ojos luz y sus sonrisas limpias, también su deseo de vivir como sus flores de loto que crecen en el fango y se alzan sobre el agua contaminada, para florecer en su propia belleza interior. Así creen los hindús que debe ser su posición en el mundo. Impactada por esta idea, en el cuaderno donde recogemos las voces del aula, puse una foto de la flor de loto y compartí con el grupo su significado y mi deseo de recoger nuestros pasos en busca de nuestras propias flores.” (Anguita, 2013).

Berea den bidaiariaren profila, gelako bizitzan sartu du eta modu honetan, bere burua bidaiari bat bezala haurren aurrean aurkeztu du. Haurrek Marisoli buruz erreferentzia hori dute; bidaiekin eta abenturarekin erlazionatzen diote eta hain gertutik elkarrekin bizi direnez, bidaiatzeko grina piztu zaie eta bidaiarietan bihurtu dira ere. Are gehiago, bidaiaren kontzeptua ikaskuntzaren metafora zuzenean eraldatu da.

Halakotz, Marisolek planteatzen duen bidaia ikaskuntza prozesu bat da, non dituzten ezagutzak jakintza berriak eskuratzeko balio zaizkien. Kontuan izanda bere haurrek bizkarrean daramaten bagajea eta jakituriak, bidaiarietan eraldatzen dira. Maistra

ikastearen prozesuaz mintzatzen denean bidaia edo bidaiaria bezalako hiztegia erabiltzen du. Eta haur bidaiariak, haur ikastunak dira egiazki.

Marisolentzat haur bidaiariak nortzuk diren argitu ostean, pasadizo pare bat aurkezten ditu:

Pasadizo 1: Yo de mayor quiero ir a Honolulu./ Nagusia naizenean, Honolulura joan nahi dut.

Isabel deituriko neskato batek bere bizitzan paseotxo bat emateko atea ireki du, bi lekuetara bidaiatu nahi duela dio; Montserrat-era eta Honolulura. Isabel Ullastrellen bizi da eta herritik Montserrat oso polita ikusten da, Honolulua, ordea urrun irudikatzen du bere amari entzun izan diolako:

“Un día de éstos lo dejo todo y me voy a Honolulu.” (Anguita, 2008, p.9).



Irudi 1. Isabelen paseotxo
oroitarazten didan irudia.

Isabelentzat urruneko leku hau ametsendako txokoa da, ezezaguna denaren misterioez asmatzeko desira da. Hurrekoa etxe ondoan duena eta urrunekoa sentitzen duenaren arteko emozioa bidaiari hasiera ematera eragiten dio. Lehendabiziko pausoetan, Honolulura bidaiatzearen desira Isabelena zen bakarrik eta nork pentsatuko luke irla txiki hau hainbeste elkarriketa momentuen mintzagaia izango zela.

Isabelen kasuan Marisolek proposatutako bidaia eragin itzela izan du, neskatoak bere ikaskuntza prozesuaz mintzatzeko bere metafora propioa erabiltzen hasi delako. Hots, Marisolen bidaiaz mintzatu ordez, Honolulua joateko ametsaz egiten du. Izan ere, Isabelen maistrak gelan Honolulu, ikasten dutenean joan nahi duten lekutik bakoitzaren irudikapenezko eta bidaian zehar dauden paisaiatzko prozesua dela aitortzen du:

“A lo largo de nuestra narración Honolulu se ha convertido en una metáfora de donde queremos ir cuando aprendemos, una metáfora del viaje por los imaginarios de cada uno de nosotros y por los paisajes y bifurcaciones que ese viaje nos ha ido regalando.”
(Anguita, 2008, p.13).

Pasadizo 2: Kurriloen istorioa.

“Voladores y Voladoras Misteriosos” taldeko haurrak bete-betean sartzen diren bidaian pasadizo ugari daude, baina Marisolen gelako haur hauek berea egiten duten istorio honen zentzu orokorra oso ahalsua da.

Kurriloen kondairak gauza asko desiratzeko gogoak pizten dizkie eta Marisolek dioen ezagutzaren bidai horretan murgiltzen dira. Lau urteko neska-mutil hauek bere ikaskuntza prozesuari izena jartzen diote, Marisolen bidaia hitza alde batera utziz baina honek biltzen duen esentzia galdu barik. Haiek hegalaria misterioitsuak dira eta kurriloak bezala hegan egin dezaketela diote, nahi adina desiratzeko eta ikasteko. Taldeko haurrek diote elkarrekin hegan egin nahi dutela, elkarrekin ikasi, alegia:

“Queremos volar todos juntos.” (Anguita, 2014, p.25).

3.3.2. Errelatoen autoreak.

Bakoitzak bere burua, besteena eta mundua ulertzearen beharra dauka. Baina besteen errelatoak ulertzeko, lehenik eta behin norberarenak ulertu behar ditu. Haurrek izaten dituzten esperientzien jabe dira eta hauek bere buruan pentsatzen dituzten edo besteei kontatzen dizkieten unetik aurrera errelatoetan bilakatzen dira, Marisolen irakasteko estiloaren ondorioz:

“Vamos creando nuestro propio relato, el que nos representa y habla de nosotros.”
(Anguita, 2013, p.35).

Bere gela pentsatzeko espazio egokia da, komunitate burujabe honetan edozein errelato ongi etorria delako beste gelakideekiko lotura errespetatzen badu. Marisolek Jacques Rancière filosofoaren hitzak bere pedagogian instalatzen ditu, hurrei nahi dutena kontatzeko askatasuna ematea inportantea ikusten baitu:

“Una comunidad emancipada es una comunidad de narradores y de traductores.”
(Rancière, 2010, p. 27).

Ostean, hurrek bere errelatoak konpartitzen dituzten pasadizo batzuk jaso ditut. Haiek esperientziak errelatatzeo askatasuna daukate, Marisolen eskolan:

Pasadizo 1: Marcel, autore zoriontsu eta aske bat.

Marcel deituriko mutikoak bere bizitzako pasadizo bat kontatu du, non bere familiako kideek pasadizoaren aktoreak diren. Zoriontasunezko emozioekin bildurik dauden oroitzapenak, Marcel-i bere bidaian aurrera egiteko bultzada eman diola dirudi beste pasadizo bat trazatu duelako.

Izan ere, mutikoak bere bizitza-kutxa besteekin konpartitu du; hau irekitzean zapatila zahar bat eta argazki bat atera ditu. Argazkian, zehazki, Marcel bere anaia Manelen alboan biluzik eta bizikleta baten gainean igota agertzen da. Bere gelakideek ea zergatik biluzik dagoen galdetzen diote eta Marcelek, bere errelatoaren autorean bihurtzen dion erantzun aparta ematen die; bera zoriontsu eta aske sentitzen dela esanez:

“Nos enseña una zapatilla vieja que es su preferida, y una foto en la que aparece desnudo, en bicicleta, junto a Manel, el de las puestas de sol. El hermano de Andreu responde a las preguntas de por qué va desnudo: “¡Ahl Es que yo soy feliz y libre ... ”
(Anguita, 2012, p.38).

Marisolen pedagogian bakoitzak den bezala sentitzea eta adieraztea funtsezkoa da eta maistrak horrela izan dadin espazioak eskaintzen dizkie. Marcelen kasuan bezalaxe, bere pasadizoa besteei kontatu dienean bera den bezala aurkeztu da eta biluzik egotea gustatzen zaiola itzulingururik gabe adierazi du. Azken batean, bere aitorenak egiazki nor den bistaratu du.

Pasadizo 2: Su nombre es el primer trozo de paz en el mundo./ Bere izena, munduko bake lehenengo puska da.

Esther deituriko neskatxa batek, bere anaia barne hartzen duen pasadizo bat partekatzen du. Bere anai jaioberriari Pau izena jarri diotela besteei kontatzen die, berari gustatuko litzaiokeelakoz bere anaiak bakea egin dezala ere:

“Esther: A mi hermano Pau, le hemos puesto este nombre porque como hemos pedido la paz en el mundo quiero que mi hermano también la haga; porque su nombre es el primer trozo de paz en el mundo.” (Anguita, 2014, p.27).

Marisolek hurrekin lan egiteko duen estiloaren ondorioz, esperientziak errelatatzea gelan ohikoa den praktika da. Haur hauek eroso sentitzen dira gertatzen zaizkien pasadizoak bere gelakideekin konpartituz, pasadizo honetako protagonista, esaterako.

Esther bere buruari eta Pau-ri barne hartzen dien errelatoaren autorean bihurtzen da, gainontzekoei berak izan duen esperientzia jakinarazten dielako. Berak errelatoa biziki sentitzen du, bere anaiaren izena munduan dagoen bakezko lehenengo zatia dela kontatzeak inarrostean diolako.

3.3.3. Komunikatzailea.

Marisolen eskolan dauden hurrek azken boladan ikasi dituzten gauza berriak besteei kontatzeko ilusioa daukate. Haur hauek mezu bat edo komunikatu bat besteekin partekatzen dutenean, gertakizun bat edo ezagutza bat besteei komunikatzen diete eta askotan bere iritzia ematera bultzatuta sentitzen dira. Gaitasun komunikatzailea, gainera, iritzia ematerako erabiltzen dute.

Maistra honekin dauden hurrak mezuak komunikatzen dituztenen pasadizo ugari daude, eta oraingoan hauetako batzuk jaso ditut. Hauetan hurrak gelan gertatzen denaren bozeramaile gisa aritzen dira, funtzio komunikatzailea, iritziak pentsamendutik haruntzago eramanez. Lehendabiziko pasadizoan Nuria eta Esther deituriko bi neskatilek herriko apaizari mezu bat iragartzen diote, helburu zehatz bat daramana atzetik. Bigarreanean, Arte Ederretako fakultatean, hurrek pertsona helduei bere ideiak komunikatu dizkiete. Eta azkeneko pasadizoan, Julia deitzen den neskatxa batek berarentzat harrigarria den aurkikuntza bat gelakideei komunikatu die. Ezagut ditzagun haur komunikatzaile hauen pasadizoak:

Pasadizo 1: Nuria eta Esther deituriko neskatilek mezu bat daukate herriko apaizarentzat.

Hurrengo pasadizoa “Voladores y Voladoras Misteriosos” taldeak izandako bidaiaren pasarte bat da. Bidai honen hari nagusiaren berri izanez, 1.000 kurrilo egitea bakea eskuratzeko, Nuria eta Esther deituriko bi neskatilek aurrera eramandako esku-hartzeaz datza.

Nuria eta Esther, Marisolen konpainian, herriko apaizarengana joan dira kurriloak kanpandorrean zintzilikatzea utz diezaien konbentzitzeko. Orduantxe, neskatilek esandakoak apaiza txunditzen du, agian mezua komunikatzeko moduak apaizaren erreakzioan eragina izan du. Adin txikiko bikoteak bere xede zein zen argi komunikatzen jakin izan du. Ondorioz, mezua oso ongi heldu zaio entzuleari, apaiza, alegia.

“Núria Perés y Esther me acompañan una tarde a ver al cura para convencerlo de que nos deje colgar las grullas en el campanario. La idea le gusta y le sorprende, pero sobre todo le seduce la historia narrada con tanta emoción por parte de las dos niñas.”
(Anguita, 2014, p.23).

Mezua komunikatzeko gaitasunaz erakutsiz gain, bere hitzetan ziurtasuna dago. Nuriak eta Esther-ek kurriloak kanpandorrean zergatik zintzilikatu nahi dituzten apaizari igarri diote. Bikote honen nahia errealitatean bihurtu da, apaizak kurriloak kanpandorrean zintzilikatzea ontzat eman duelako.

Pasadizoak amaiera ederra dauka, Nuria, Esther, Marisol eta gainontzeko hegalari misterioetsuek esku-hartze aktiboa eta gizartearekin konprometitua aurrera eramatea lortu dutelako. Izan be, kurriloak kanpandorrean zintzilikatzea munduan bakea aldarrikatzeko egiten dute.

Pasadizo 2: Arte Ederretako fakultatean, pertsona helduei bere ideiak komunikatu dizkietenean.

Marisolen haur-taldea unibertsitatera, Arte Ederretako fakultatera, bisitan joaten denean hango ikasleekin hitz egiten dute:

“Vau ser valents i vau parlar davant de tots i totes, moltes persones van parlar i d’altres també estàveu molt presents.” “Primer tenia vergonya però quan vam estar amb poquets vaug parlar més.” (Haur anonimoak)



Irudi 2. Marisolen haurrak eta Arte Ederretako ikasleak. (Anguita, d.g).

Haurrak Marisolekin, Arte Ederretako fakultatera joaten direnean gai sentitzen dira pertsona helduekin hitz egiteko eta, horrez gain, batzuk eta besteak nola ikasten duten entzuteko eta kontatzeko.

Pasadizo 3: Zenbat neurtzen du Juliak?

Maria izeneko neskak bere bizitza-kutxa ireki zueneko pasadizoa gogora ekartzen dut, bera gelakideei gertaera bat komunikatzen dielako. Neskatoak Juliak, bere ahizpa txikia, zenbat neurtzen duen besteei komunikatzen die eta badirudi berak komunikatu duen gertaerak gainontzeko gelakideetan eragina izan duela. Orain Maria eta bere gelakideentzat inguruko pertsonen zenbat neurtzen duten jakiteak asaldura bat da, Marisolek dioenez:

“Al cabo de unos días, Maria comparte con nosotros cuánto mide ahora Júlia y qué ha hecho para saberlo. A partir de su experiencia, la fiebre por medir personas importantes en nuestras vidas se instala en el aula.” (Anguita, 2012, p.36).

Marisolen pedagogian, elkarren arteko komunikazio garbia izatea oso garrantzitsua da. Haur komunikatzaileak; mezu bat daramatena dira edo beste era batean esanda, gertaera bat besteei komunikatzen dietenak dira.

3.4. Haurra soziala da: Laguntasuna.

3.4.1. Gizartekoia.

Marisolen eskolako hurrak gizartekoiak dira, hots, besteekin tratua eta harremana izatea gustatzen zaie, askotan laguntasuna besteek behar duten momentuetan laguntzen erakusten dute. Lagunei elkarrekin denbora pasatzea eta esperientziak izatea gustatzen zaie, beste pertsonen konpainia oso aberasgarria izan daiteke.

Balore etikoak barneratuak dituzten hurrek; besteenganako errespetua adierazten dute, bere lagunak dira eta besteekin errelatoak entzuten dakizkitez. Elkarrekikotasunezko egoera hori ematen denean, konplizitate espazio bat sortzen dute.

Laguntasuna elkarrenganako hartu-emanak izaten datza eta Jorge Drexler kantautoreak dioen bezala, bakoitzak jasotzen duen berdina ematen du eta ematen duena jasotzen du:

“Cada uno da lo que recibe y luego recibe lo que da, nada es más simple, no hay otra norma: nada se pierde, todo se transforma.

Todo se transforma”. (Dexler, 2004, 3 track).

Lagunen arteko hartu-emanak bihotzoneko ekintza bat bezala ulertzen dut, lagunak intimitatezko espazioak oparitzen dizkietelako elkarri. Haur batek bere lagun batekin bere emozioak konpartitzen baditu, errespetatzen diolako eta berarekin konfiantza duelako da. Eta aldi berean, besteak bere istorioak kontatzen badizkio lagun sentitzen duelako egiten du.

Pasadizo 1: Sense vosaltres el viatge de cadascú no tindria sentit./ Norberaren bidaiak ez luke zentzurik izanen, zuek barik.

Bakea egiten duten sagutxoek ibilbide bat izan dute Marisolekin eskolan ikasi duten denboran zehar. Pasadizo honek haur talde honek egindako hausnarketa finala jasotzen du, ikaskuntzazko ibilbide honi itxiera ematen dion hausnarketa bat, alegia. Norberaren bidaiak besteekin konpainiarik gabe zentzurik ez zuen izango, Marisolek bere gelako haurren azalpenak jasotzen ditu:

“De nou reitero que sense vosaltres el viatge de cadascú no tindria sentit, el fem junts i és això el que ho fa tant ric! Gràcies a tots i totes va ser molt divertit i intens!” (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 4).

Marisolen hurrek besteen alboan ikasten dute, lagunak dira eta bestearengatik arduratzen dira. Bere pedagogian, laguntasuna besteen alboan bizitzen ikasten da pertsona gizartekoiak baitgara eta konpainian egotea gustatzen baitzaigu.

Pasadizo 2: Hola Pol./ Kaixo Pol.

Pol izeneko mutikoa pasadizo honen protagonista da. Beste eskola batera joanen da eta bere lagunei jakinaren gainean jartzen dienean, hauek triste jartzen dira eta muxu asko ematen dizkiete. Gelako neska-mutilek Pol-i lotzen dien laguntasuna erakusten dute:

“Quan vam saber que marxaves ens vam posar una mica tristos ... Estàs bé?”

Jana: Hola Pol t'estimo molt i 'enyoro.

Paula Font: Ets molt guapo.

Marisol: Et trobo molt a faltar, les teves idees, les teves preguntes, les teves mirades. t'estimo”. (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 1).

Janak eta Paulak, bere gelako kideak, bere lagunarekiko duten estimua agerian uzten dute; Pol laguna dute eta faltan botako diote. Marisolen hurrak gizartekoiak dira, naturaltasunez besteekin esperientziak konpartitzea gustuko dutelako.

3.4.2. Konplizea.

Konplizeak diren hurrek besteen bizipenak entzuten dituzte, besteen kezak erantzuten saiatzen dira eta kontseiluak ematen dizkiete. Besteen alboan elkartasun sentimendua eraikitzen dute, elkarrekin pentsatzen direlako.

Hurrek bere lagunaren sentimenduak bereizteko abilezia, empatia, eduki behar dute. Ni neu besteen lekuan jarri eta besteak nire lekuan; besteen iritziak ez inposatuz, norberaren egia ez delako bakarra. Besteek arazo bat daukatenean laguntza eskaintzen diete, batzuetan ez dute ezer berezirik egiten eta bakarrik bestearen alboan konpainian egotearekin nahikoa da.

Marisolen ustetan, hurrek kontatzen duten istorioa edo konpartitzen dituzten sentimenduak besteen buruetan burrunba egiten dute. Bere pedagogian konplizitatearen ideia oso zabaldua dago; bere gelan hurrek beste lagun baten istoriaren aztarnak jarrai ditzazketeelako.

Marisolek proposatzen duen konplizitatezko espazioa izugarri gustatzen zait, besteen konplize izatearen ideiak esangura duela uste dudalako. Besteekin, ingurukoekin, konfiantza izatea beharrezkoa da elkarren arteko konplizeak izateko. Aldez aurretik ezagutzen ez dugun pertsona batekin garen bezala izatea kostatzen zaigu, baina behin konfiantza hartu dugunean eroso sentitzen gara. Orduan, konfort eremu horretara heldu arte bion arteko konplizitatea izatea zail samar izan daiteke.

Maistra honen gelako hurrek elkarrekin eskutik ematen dira, elkarren arteko konfiantza eskuratzen dute eta konplizeak dira, elkarri eragiten dietelako. Konplizitatezko espazioetan mugitzen diren haur batzuen pasadizoak izan badaude:

Pasadizo 1: Sergi deituriko mutikoa bere lagunaren konplize azaltzen denean.

Marc deituriko haur batek ez hiltzearen desira oso gertu duela dirudi eta Sergi-k bere lagunak sentitzen duen beldurra ulertu du. Konplizitatezko espazio bat sortu da bi lagun artean, Sergi-k Marc-ek duen heriotzarekiko beldurraren jakinean egonda hau animatzen saiatzen da urte asko dituela bizitzeko esanez.

“Marc: me da mucha pena; que no me quiero morir.

Y Sergi Camps, uno de sus más amigos, lo anima diciendo: Faltan millones de años para morir. Aún debes ser adulto, debes ir al instituto y a la universidad”. (Anguita, 2014, p.24).

Lagunen arteko konplizitatea ematen da Marisolen pedagogian, bestearen alboan daude momentu zailtan eta elkarren arteko konplizeak dira.

Pasadizo 2: Un nosotros que importa./ “Gu”, garrantzia duenak.

Mariak bere bizitza-kutxa irekitzen duen pasadizoan, bere lagun konplizeak barne hartzen dituen beste pasadizo bat jasotzen du. Lau urteko neskatoak sekretuak bakarrik lagunei kontatzen zaizkiela dio eta beraiek bere lagunak direnez, bere

sekretuak kontatu nahi dizkiela aitortzen du. Marisolek Mariaren kontakizuna jasotzen du:


“Maria, de 4 años, enseña objetos nuevos de su caja de vida. Son sus secretos, dice “solo se los cuentan a los amigos” y “vosotros sois mis amigos. Maria convierte así ese “vosotros” en un “nosotros” que importa, ...”. (Anguita, 2012, p.34).

Mariak bere errelatoaren hasieran bere lagunei “zuek” bezala deitzen die, eta ondoren bere lagunak eta bera barne garrantzia duten “gu” batean bihurtzen dira. Haur hauek elkarren arteko konplizeak dira; jakin-mina eta esperientziak partekatzen dituztelako. Neskatoak bere lagunei zein garrantzitsuak diren bere bizitzan jakinarazi die, lagun-talde bat bezala hartzen ditu bakarrik ez baita sentitzen.

Pasadizo 3: Y subir al tren de la bruja .../ Sorginaren trenean igotzean ...

Egun batean Marisolek bere bizitza-kutxa ireki du, gelako hurrek egiten duten bezalaxe. Maistrak txikia zeneko pasadizo bat bere hurrekin partekatzen du; txikitan oso beldurtia zela aitortzen die eta iluntasunari beldur ziola dio, baina sorginaren trenean igotzean beldur galanta pasatzen zuela kontatzen die. Hona hemen Marisolen errelatoa:

“Otro día les explico que de pequeña era muy miedosa. Me daba mucho miedo la oscuridad y subir al tren de la bruja, ... Mi relato les autoriza a tener miedo y, sobre todo a contarlo.” (Anguita, 2012, p.38).



Irudi 3. "Nuestro camino."

Bere errelatoak gelako hurrei beldurra sentitzeko bidea ematen die, batez ere sentipen hau kontatzeko. Maistra honen eskolan hurrek bere sentimenduei, postiboak nahiz negatiboak izanda, izena jartzen ikasi behar dute.

Batzuetan besteen esperientziak entzunda, gurea azaleraztea errezago egiten zaigu. Horregatik, Marisolek sorginaren trenean igotzea beldur galanta pasatzen zuela kontatzen die; haur horien konplizitatea eskuratu nahi duelako.

3.4.3. Taldekidea.

Burujabeak diren hurrak besteekin elkarlanean aritzeko gai dira. Marisolen gelan norbera bere burua eta bestena sakonki ezagutzera heltzen da, bakarkako zein taldeko ikaskuntzazko esperientziak izaten dituztelako. Talde baten partaide sentitzen diren hurrek besteekin proiektu bat konpartitzen dute eta interes bat edo jomuga bat elkarrekin mantentzen die.

Marisolen gelan begi-bistara geratzen denez, talde batean egoteko besteekin malgua eta errespetutsua izatea garrantzizkoa da. Haur taldekideak diren horiek, elkartasunezko sentimendua dute eta taldeko kideak laguntzat jotzen dituzte. Taldean ikasten duten hurrek, erabakiak guztien artean hartzen dituzte ikaskuntza elkarrekin izatea ahalbidetzen duena.

Marisolekin dauden haurrak taldekideak dira, pasadizo batzuetan antzeman daitekeenez. Alde batetik, gelako haur guztiak primitiboez mozorrotzen diren pasadizoa jasotzen dut eta bestetik, taldean ikasteak indar itzela duela jakinarazten digun pasadizo bat:

Pasadizo 1: Primitiboen konpartsa.

Bakea egiten duten sagutxoek primitiboek zuten bizimodua sakontasunez ezagutu dute, haien interesekoa baita. Inauteriak iristear daude eta Marisolen gelako haurrek primitiboez mozorrotuko direla erabakitzen dute, izan ere, haien arbasoetan eraldatzearen ideia zoratzen die. Haiek taldeko sentimendua dute, guztiek elkarrekin primitiboetan eraldatu nahi direlako. Primitiboen konpartsak pasadizoa errelatatzen du:

“Carnestoltes ens ha regalat ser uns altres ... Els nostres avantpassats. Hem fet la comparsa de primitius inspirant-nos en la pel·lícula d'ao le dernier neardenthal que ens ha ajudat a mirallar-nos en l'ao i l'aki i acostar-nos als nostres "tatara,tatara", com diu l'Aleix, els homo sapien”. (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 1).

Marisolen haurrek lepokoak egin dituztela, aurpegia margotu dutela eta primitiboen antzera ileak laskitu dituztela kontatzen dute. Arbasoen azalean sartzen dira, haie dantzatzak eta musika imajinatuz eraldaketaren eguna iristen den arte:

“Ens hem fet collarets i estris com ells i elles, ens hem maquillat i despentinat com ells, hem començat a imaginar les seves danses, com feien música i així ha arribat el dia de la transformació”. (Ratolins i ratolines de la pau, 2011, para. 7).

Pasadizo honetan, beste askotan bezala, Marisolen gelako haurrek interes bat konpartitzen dute eta oraingoan primitiboen azalean sartzeko gura dute. Norbera besteen eskutik emanda birsortzen denaren aldekoa da Marisol, guztien artean izateko eta sentitzeko laguntzen dira.

Pasadizo 2: ¡Yo soy tú, yo soy todos, pero yo soy yo!/ Ni zu naiz, ni guztiak naiz, baina ni neu naiz!

“Planetas Blaus” taldeko haurrek; bakoitza beste lagun batean eraldatuko bazen nola jokatu luken, nola pentsatu luken eta nola hitz egingo luken hausnartu dute. Julia,

lau urteko neskatxak ikusgune honen pentsalaria izan da beste proposamena iradokitzen dienean:

“Y si hacemos ver que somos otro, yo soy tú, yo soy tú” (Anguita, 2011, p.22).

Marisolen gelako hurrek ez dute bereber ikasten, besteen ondoan ikasten dute. Juliaren proposamenak, lagun arteko identitate aldaketa, talde bat izatearen zentzua islatzen du.

Neskatoak bere lagunak bere pentsamenduen parte direla eta beraiekin esperientziak izateko gogoak dituela erakusten du. Maistra honek, bere gelako hurrek ezagutzaren bidaia besten eskutik emanda egiten dutela dionean; ikaskuntza elkarren arteko prozesua dela adierazten du.

3.4.4. Sentibera.

Hurrek sentitzen dituzten emozioak lagunei, naturaltasunez, kontatzea oso garrantzitsua da Marisolen eskolan. Bakoitzak bere modura eta bere hitzekin sentitzen dituen emozioak adierazten ditu, baina batzuetan ekintza batek ahoko azalpen bat baino gehiago esan dezake. Marisolek hurrei bere intimitateen ateak lagunentzat irekitzea, bakoitzaren eta besteen emozioak kudeatzeko, proposatzen die.

Emozionalki ongi egotera edo gaizki egotera eramaten dieten sentipenak daude. Dena den, barne gatazkarekin loturik dauden emozioak ez daude ongi ikusiak buruko egonezina sortzen dutelako. Baina hurrek emozio guztiekin bizitzen ikasi behar dute; triste egotera eramaten dieten egoerak ere kudeatu behar dituzte. Esaterako, tristura, beldurra, sumina, ziurgabetasuna, errua, inbidia ... bezalako emozioekin egoten ikasi behar dute.

Sentiberak diren hurrak, bere sentimenduei izena jartzeko gai dira eta gainean daukaten egoera emozionala onartzen badakite. Marisolen pedagogiaren lerroak jarraituz hurrek lagun aurrean bere emozioak konpartitzera ausartu behar dira, emozio positiboak edo ezatseginak diren inporta gabe. Bere gelan, haur askok dituzten emozioak naturaltasunez tratatzen dituzte eta behar izanez gero lagunei laguntza afektiboa eskatzeko gai dira.

Emozioak lantzea erraza ez den arren, ariketa oso garrantzitsua da. Hurrek zer gertatzen zaien aztertzen badute eta sentitzen dutena besteei kontatzeko gai badira burujabetasun asko erakusten dute.

Marisolek dio norberari gertatzen zaiona kontatzea, emozioak bideratzeko bidea dela. Bat nator berarekin, sentitzen dudana konfiantza daukadan pertsona bati kontatzen diodanean pisu handia kentzen dudalako gaineratik. Bestearekin nire emozioak konpartitzeak, gertatzen zaidana onartzea dela uste dut. Nire emozioak identifikatzea aurrerapauso itzela da eta niri gertatzen zaidan bezala, edonori gerta lekiok. Maistra honek emozioekin lan egiten duela kontuan izanda, haur sentiberak agertzen diren pasadizo ugari daude. Hona hemen horietako batzuk:

Pasadizo 1: ... se me sale el monstruo y me pongo nervioso./ ... munstroa kanpora irteten zait eta urduri jartzen naiz.

“Donde viven los monstruos” pelikulak Max izeneko mutikoaren istoria kontatzen du. Max-en ametsa munstro batean eraldatzea da, edonorri beldurtzeko. Marisolen gelan pelikula ikusi dute eta ondoren honi buruz mintzatu dute; Marc izeneko hauraren nasaitasuna indarrez gela osoan entzun da:

“Marc: cuando se me escapa el tranquilo, se me sale el monstruo y me pongo nervioso. Pol: yo me imagino que sale un monstruo por la puerta de la habitación”. (Anguita, 2011, p.23).

Marc-ek, zerbaitek haserretzen dionean munstroa kanpora irteten zaiola eta urduri jartzen dela aitortu du. Modu honetan, haur honek batzuetan bortitz eta urduri sentitzen dela oartu du. Marisolen gelan beldurra sentiarazten duten eta haserrea sortarazten duten egoerak ere azaltzen dira, negatiboak ikusten diren egoera emozional horiek lantzea garrantzitsua da berarentzat.

Pasadizo 2: Marc, hil ez nahi duen haurra.

Kurriloen istoriaren harira, Marisolen gelako hurrek bere desirez hizketan ari dira eta Marc Valldeperasek beldurra diola dio ez duelako hil nahi. Horregatik, bere desira kurrilo asko eginez inoiz ez hiltzea da:

Marc V: ¡Yo tengo miedo porque no quiero morirme! ¡Quiero las grullas! ¡Las grullas me hacen decir que no me muera!

Marc Arranz: A mí me gusta que hagamos 1.000 grullas y que toda la gente no muera.

Marc. V: ¡Y mi familia!” (Anguita, 2014, p.25).

Beste emozio ez oso atsegin bat agertu da Marisolen gelan, Marc-ek beldurra duela adierazteko ahotsa eduki du. Mutiko hau heriotzarekiko beldurri azaldu da, baina sentitzen duen hori onartu izan du.

Pasadizo 3: Yo quiero tener mi cara./ Nire aurpegia mantendu nahi dut.

“Yo soy tú, yo soy todos, pero yo soy yo” pasadizoaren ondorioz, haur batek bere identitatea galtzearen beldur da. Arnau izeneko mutikoari bere lagun baten aurpegia jartzea eta berea beste lagun bati ematearen ideia ez zaio batere gustatzen. Are gehiago, beste pertsona baten aurpegia jartzea beldurra ematen dio berak Arnau izaten jarraitu nahi duelako eta bere aurpegia galdu dezake hau beste bati emanaz gero:

“Yo quiero tener mi cara porque así mis padres estarán contentos; si no me encuentran, se van a poner muy tristes ...” (Anguita, 2011, p.22).

Marisolek duen eskola egiteko moduan, emozio guztiek abagunea daukate eta aldaketa zorabiagarria suposatzen dieten horiek gelakideen laguntzaz mamurtzen dituzte.

Pasadizo 4: Ens conviden a escuchar el cor./ Bihotza entzutera gonbidatzen gaituzte.

Pasadizo honetako protagonistei hunkitu dien unetxo zoragarri batek, niri oso-osorik hunkitu nau ere. Une bihozbigun bat da, hurrei bizirik jarraitzearen arrazoia deskubritzera eramaten diena.

Gelako neska baten ama etorri da gelara. Sara haurdun dago, gelako hurrei sabelean nini bat daramala eta Greta deituko diola kontatu die. Sarak niniaren bihotza entzuteko tresna berezi bat erakusten die neska eta mutiko guztiei, horrekin Gretaren taupadak entzunen dituztela ziurtatzen die. Haur guztiek Sarak sabelean duen ninia bizirik dagoenaren seinaleren baten esperoan, arretatsu, daude.

“La Sara prepara l’aparell per escoltar el cor dels bebès, s’aixeca el jersei i comença a buscar la Greta. Es fa un gran silenci expectant i ple d’emoció.” (Els pescadors i les pescadores d'estrelles, 2013, para. 8).

Ondoren, Sarak hurrei Gretaren bihotzaren taupadak entzutera gonbidatzen die. Esperientzia hori bizitzera animatzen diren hurrek entzungailu batzuk jartzen dituzte eta Gretaren bihotz-taupadak entzuteko kontzentratzen dira. Soinuren bat entzutean agerian geratzen diren emozioak anitzak dira, haur batzuk zoriontasuna edota lasaitasuna sentitzen dute Greta bizirik dagoela jakitean, beste batzuk ordea beldurra sentitzen dute.

“Aquest misteri fosc i amb música marina que ressona des d'on són els bebès i on abans érem nosaltres desvetlla emocions fortes. Ens conviden a escoltar el cor i és un moment molt íntim tot i que hi ha persones que no volen escoltar-lo, tenen una mica de por.” (Els pescadors i les pescadores d'estrelles, 2013, para. 9).

Sarak gelako hurrekin elkarbanatu duen altxorrek, hurrei zergatik dauden bizirik kontatu die. Gretak haien bihotzak taupaka daudela ere gogorarazi die, alegia. Pasadizo hunkigarri honek, Marisol en pedagogian emozioen lanketa funtsezkoa dela argitzen du.

ONDORIOAK

Irakaskuntzaren munduaren partaide naizelarik, lan pertsonal eta hausnartzaile bat egin izan nahi dut. Nire identitatea, pertsona eta maistra bezala, zein den definitzea garrantzitsua dela uste dudalako. Halaber, nire buruari ea nor naizen, ea nondik natorren eta ea norantz joan nahi dudan galdetu nahi diot. Hau guztia dela eta, lan honek kutsu pertsonala nahiz profesionala dauka.

Hasieran lan hau burutzeko interesa piztu zitzaidanean, momentura arte nekiena eta hortik aurrera ikasiko nuenaren ideari buruz hausnartu nuen. Bidenabar, Marisolek duen hezkuntza ikuspegia aztertzea erabaki nuen, nire identitatea pertsona eta maistra bezala aurkitzera lagundu ahal zidala uste nuelako.

Honen harira, Marisolek bere eskola-kideekin eta beste maistrekin konpartitu dituen ikaskuntzak eta gela-esperientziak, maistraren paperaz hausnartzera eraman nau. Are gehiago, maistra izatearen ditudan zalantzetan nire burua pentsatzeko balio izan zait. Lanaren bidean azaldu zaidan hausnarketa honek aukera eman dit nire izatetik pentsatzeko: nor naizen, zer oztopo eta indar-gune ditudan, nor izan nahi dudan ... Hari horretatik tiratuz, Marisolen edo beste maistren bide berdina ezin dudala ibili konturatu naiz, izan ere, nire bidea urratu behar dut. Bidaideren bat azaltzen bada, elkarrekin ikasi dezakegun arren.

Marisolen proposamen pedagogikoa ez da lan metodo bat, bizi pentsamolde bat baizik; baina gaur egungo hezkuntzari buruzko kontzepzioan anabasa itzela dago. Ikaskuntza sustatzailea izan behar da, ez ordea, dibertigarria. Marisolen gelako haurrek adibide ederra ematen dute honen gainean; haiek gelan grina sortzen dizkieten erronka konplexuak ezartzen dituzte. Haurrek interesak izatea oso inportantea da, horrela egunero eskolara joateko gogoak izango dituzte eta misterioen harietatik tiratzen jarraituko dute; bukaezina den armiarma bat eginez.

Marisolen eskola egiteko moduari buruz egin dudan analisi honek, egungo tokiraino gidatu nauen argindarra izan da. Azken batean, badirudi bere errelatoek nire barreneko interesen amets sakon batetik esnatu nautela.

BIBLIOGRAFIA

Andréu, J. (2002). Las técnicas de análisis de contenido: Una revisión actualizada. *Fundación Centro de Estudios Andaluces*. 2-4, 11-21.

Anguita, M. (d.g.) *Sobre relaciones y dictadores*; argitaratu gabe.

Anguita, M. (2008). Yo de mayor quiero ir a Honolulu. *Revista Aula de infantil*. 41, 9-13.

Anguita, M., Hernández, F. (2010). El currículo de educación infantil como un tejido de experiencias, relaciones y saberes. *Cuadernos de Pedagogía*. 400, 77-80.

Anguita, M., Hernández, F., Ventura, M. (2010). Los proyectos, tejidos de relaciones y saberes. *Cuadernos de Pedagogía*. 400, 78-79.

Anguita, M. (2011). Yo soy tú, yo soy todos, pero yo soy yo. *Revista Aula de infantil*. 60, 21-23.

Anguita, M. (2012). Cajas de vida: paisajes que nos narran. *Cuadernos de Pedagogía*. 422, 34-38.

Anguita, M. (2013). Columnas Historias mínimas. Viviendo como los lotos. *Cuadernos de Pedagogía*. 439.

Anguita, M. (2014). Planeta grullas o de cómo desear juntos. *Cuadernos de Pedagogía*. 448, 22-27.

Anguita, M., Herrador, M., San Román, R. (2015). "Creador@s de circunstancias para aprender junt@s" hitzaldia. Haur Hezkuntzako Jardunaldiak 2015-2016 (EHU). [<https://www.youtube.com/watch?v=bwQnxSu2R8U>]. (Marisolen iruzkina bakarrik, 2:09:49)

Anguita, M. (d.g.) *Cartografías de lo posible*. Argitaratu gabe.

Brumer, J. (2007). Concepciones de la infancia: Freud, Piaget y Vygotsky. *Acción, pensamiento y lenguaje. Alianza Psicología*. Cap. 1.

Drexler, J. (2004). Todo se transforma. *Eco* [CD]. Spain: Warner Music Latina.

Drexler, J. (2010). La trama y el desenlace. *Amar la trama* [CD]. Spain, Madrid: Warner Music Spain.

Enesco, I. (2001). El concepto de la infancia a lo largo de la historia.

Hernández, F. (1988). La globalización mediante proyectos de trabajo. *Cuadernos de Pedagogía*. 185, 12-14.

Hernández, F. & Ventura i Cot, M. (1992). *La organización del currículum por proyectos de trabajo*. Barcelona: Graó.

Hernández, F. (2000) Educación y Cultura Visual. *Barcelona; Octaedro*. (p.202)

Hernández, F. (2002). Mapa para navegantes. *Cuadernos de pedagogía*. 310, 79-80.

Blog-ak

Marisol Anguita. (2010-2011). Ratolins i ratolines de la pau. [<http://serralavella5-ratolins.blogspot.com.es/>].

Marisol Anguita. (2012-2013). Els pescadors i les pescadores d'estrelles. [<http://elspescadorsilespescadoresestrelles.blogspot.com.es/>].

Irudiak

Irudi 1. "Isabelen paseotxora oroitarazten didan irudia." Iturria: Propioa.

Irudi 2. Anguita, M. (d.g). "Marisolen haurrak eta Arte Ederretako ikasleak." Cartografías de lo posible. Argitaratu gabe.

Irudi 3. Tremblay, C. (d.g). "Nuestro camino." https://www.etsy.com/es/listing/98720358/madre-e-hija-nuestro-camino-lamina?ref=shop_home_feat_1